



# NOKIA 3200

Telefonoaren  
erabilera-gida.

# NOKIA

# Nokia 3200en erabiltzailearen eskuliburua

9356887  
1. edizioa

## ADOSTASUN-DEKLARAZIOA

Guk, NOKIA MOBILE PHONES Ltd, gure erantzukizun bakarraren baldintzapean aitortzen dugu RH-30 produktua ondoko kontseiluko Arau honetan ezarritako baldintzetara egokitzen dela: 1999/5/EE.

Adostasun-deklarazioaren kopia bat dago helbide honetan:  
[http://www.nokia.com/phones/declaration\\_of\\_conformity/](http://www.nokia.com/phones/declaration_of_conformity/).

# CE 168

Copyright © 2003 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Debekatuta dago dokumentu hau osorik edo horren zati bat inolako eratan erreproduzitzea, transferitzea, banatzea edo jasotzea, Nokiaren alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Nokia, Nokia Connecting People, Xpress-on eta Pop-Port markak Nokia Corporation-en merkataritzako marka edo marka erregistratuak dira. Hemen aipatzen diren gainerako produktuak eta enpresen izenak haien jabeen merkataritzako marka edo marka erregistratuak izan daitezke.

Nokia tune Nokia Corporation-en soinu-marka bat da.



Java is a trademark of Sun Microsystems, Inc.

US Patent No 5818437 and other pending patents. T9 text input software Copyright (C) 1997-2003. Tegic Communications, Inc. All rights reserved.



Includes RSA BSAFE cryptographic or security protocol software from RSA Security.

Nokiak etengabe garatzeko politikarekin lan egiten du, eta dokumentu honetan deskribatutako produktuetan aurrez ohartarazi gabe aldaketak eta hobekuntzak egiteko eskubidea dauka.

Nokiak ez du bere gain hartuko, inola ere, datuen edo diru-sarreraren galera, ez eta inolako kalterik, gertakaririk, ondoriozkorik edo zeharkakorik ere, horien arrazoia edozein dela ere.

Dokumentu honen edukia dagoen dagoenean emango da. Aplikatu beharreko legeak hala eskatzen duenean izan ezik, ez da inolako bermerik –berariazkorik edo inpliziturik– ematen, baina merkaturatzeko eta egokitzeko berme inplizitua ez da mugatzen dokumentu honen zehaztasunera, fidagarritasunera eta edukira. Nokiak dokumentu hau edozein unetan eta aurrez abisatu gabe berrikusteko edo merkatutik kentzeko eskubidea dauka.

Produktu jakin batzuk eskura egotea aldatu egin daiteke eskualde batetik bestera. Galde iezaiozu gertuen duzun Nokia banatzaileari.

# Aurkibidea

---

ZURE SEGURTASUNERAKO .....	9
Informazio orokorra.....	13
Nokia PC Suite-ren softwarea.....	13
Sarbide-kodeak.....	13
Memoria partekatua.....	14
Edukiak eta aplikazioak deskargatzea .....	15
(E)GPRS.....	15
1. Zure telefonoa.....	17
Teklak.....	17
Konektoreak, linterna eta kamera.....	17
Pantaila zuria eta pantailako adierazlea.....	18
Linterna .....	19
2. Oinarrizko kontzeptuak .....	20
SIM txartela eta bateria jartzea.....	20
Karkasa aldatzea.....	22
Bateria kargatzea .....	24
Telefonoa piztea eta itzaltzea .....	25
3. Oinarrizko funtzioak.....	26
Deitzea .....	26
Sartzen ari den deia erantzutea edo deia ez hartzea .....	28
Hizketan ari zarela erabilgarri dauden funtzioak .....	29
Teklatua blokeatzea .....	29
Bozgorailuak erabiltzea.....	30

Testua idaztea .....	31
Testu prediktiboarekin idaztea .....	31
Testu prediktiboaren funtzioa aktibatzea eta desaktibatzea .....	31
Testu prediktiboaren funtzioa .....	31
Hitz konposatuak idaztea .....	33
Ohiko testuaren funtzioa .....	33
Testua idazteko jarraibide orokorrak .....	33
4. Menua erabiltzea .....	35
Menuko funtzio batean sartzea .....	35
Menuko funtzioen zerrenda .....	37
5. Menuko funtzioak .....	44
Mezuak (1. menua) .....	44
Testu-mezuak eta irudidun mezuak (SMS) .....	44
Mezuak idaztea eta bidaltzea .....	44
Mezu elektronikoak idaztea eta bidaltzea .....	46
Testu-mezuak, irudidun mezuak edo mezu elektronikoak irakurtzea eta horiei erantzutea .....	47
Testu-mezuentzako eta irudidun mezuentzako karpetak .....	49
Multimedia mezuak (MMS): .....	49
Multimedia mezuak idaztea eta bidaltzea .....	50
Multimedia mezuak irakurtzea eta horiei erantzutea .....	53
Mezuak ezabatzea .....	54
Ahots-mezuak .....	55
Informazio-mezuak .....	55
Mezuen doikuntzak .....	55
Testu-mezuen eta mezu elektronikoaren doikuntzak .....	55
Multimedia mezuen doikuntzak .....	57
Letra-tipoaren tamaina doitzea .....	58

Zerbitzu-komandoak.....	58
Deien erregistroa (2. menua).....	59
Galdutako, jasotako eta bidalitako deiak.....	59
Deien kontagailuak eta tenporizadoreak.....	60
Aurkibidea (3. menua).....	60
Menu honetako funtzioetara sartzeko metodo alternatiboak.....	61
Aurkibidearen doikuntzak hautatzea.....	61
Izenak eta telefono-zenbakiak gordetzea.....	62
Gordetako izen bati edo zenbaki bati irudi bat atxikitzea.....	64
Aurkibidean izen bat bilatzea.....	64
Kontaktuak ezabatzea.....	64
Izenak, zenbakiak edo testu-elementuak editatzea.....	65
Aurkibidea kopiatzea.....	65
Aurkibidearekin lotutako beste funtzio batzuk.....	66
Markaketa bizkorra.....	66
Bisita-txartelak.....	67
Doikuntzak (4. menua).....	67
Moduak.....	68
Tonuen doikuntzak.....	69
Telefonoan tonu gehiago sartzea.....	70
Pantailaren doikuntzak.....	71
Dataren eta orduaren doikuntzak.....	72
Zuzeneko sarbide pertsonalak.....	73
Konektagarritasuna.....	74
Infragorriak.....	74
GPRSa.....	75
Dei-doikuntzak.....	76
Telefonoaren doikuntzak.....	78

Osagarrien doikuntzak.....	80
Osagarrien adierazleak, pantaila zuri dagoela.....	81
Segurtasun-doikuntzak.....	81
Hasierako balioak berriz ezartzea.....	83
Galeria (5. menua).....	83
Galeriako artxiboen aukerak.....	85
Multimedia (6. menua).....	86
Kamera.....	86
Argazkiak ateratzea.....	87
Kameraren doikuntzak konfiguratzeko.....	88
Irratia.....	88
Irrati-kanalak sintonizatzea eta gordetzea.....	89
Irratiarekin lotutako beste aukera batzuk.....	90
Grabagailua.....	90
Antolatzailea (7. menua).....	91
Alarma.....	91
Alarma abiaraztea.....	92
Agenda.....	93
Agendaren ikuspegiak erabiltzea.....	93
Agendan ohar bat sortzea.....	94
Ohar bati lotutako alarma aktibatzea.....	95
Kalkulagailua.....	95
Moneta-trukea egitea.....	96
Aplikazioak (8. menua).....	96
Jokoak.....	97
Bilduma.....	98
Aplikazio baterako edo aplikazio-multzo baterako beste aukera batzuk.....	98
Java aplikazio bat deskargatzea.....	99



Zerbitzuak (9. menua).....	100
Nabigazio-zerbitzuetara sartzeko eta horiek erabiltzeko oinarrizko prozedura.....	100
Telefonoa nabigazio-zerbitzuak erabiltzeko konfiguratzeko.....	101
Mezu gisa jasotako zerbitzu-doikuntzak babestea.....	101
Zerbitzu-doikuntzak eskuz sartzeko.....	101
Itxuraren doikuntzak.....	102
Cookie-n doikuntzak.....	102
Nabigazio-zerbitzu batekin konektatzea.....	103
Zerbitzu baten orrietan nabigatzea.....	104
Nabigatzean telefono-teklak erabiltzea.....	104
Nabigazioan dauden aukerak.....	104
Nabigazio-zerbitzu batetik deskonektatzea.....	105
Gogokoak.....	106
Gogokoak hartzea.....	106
Zerbitzuko sarrerako postontzia.....	107
Cache memoria ezabatzea.....	107
Nabigatzailearen segurtasuna.....	108
Segurtasun-modulua.....	108
Ziurtagiriak.....	108
Joan hona (10. menua).....	109
SIM zerbitzuak (11. menua).....	109
6. Bateriari buruzko informazioa.....	111
Kargatzea eta deskargatzea.....	111
ZAINKETA ETA MANTENTZE-LANA.....	113
SEGURTASUNARI BURUZKO INFORMAZIO GARRANTZITSUA.....	115

# ZURE SEGURTASUNERAKO

---

Irakurri jarraibide erraz hauek. Arauak ez errespetatzea arriskutsua edo legez kontrakoa izan daiteke. Eskuliburu honetan informazio xeheagoa aurkituko duzu.



Ez piztu telefonoa mugikorrak erabiltzea debekatuta dagoen lekuetan edo interferentziak sor ditzakeen edo arriskuren bat ekar dezakeen lekuetan.



## **ERREPIDEAN ERNE IBILTZEA FUNTSEZKOA DA**

Ez erabili telefono mugikorra gidatzen ari zarenean.



## **INTERFERENTZIAK**

Telefono mugikor guztiek jaso ditzakete haien errendimenduari eragin diezaieketen interferentziak.



## **ITZALI TELEFONOA OSPITALEETAN**

Bete horren inguruko araudia. Itzali telefonoa tresna mediko batetik gertu zaudenean.



## **ITZALI TELEFONOA HEGAZKINETAN**

Haririk gabeko gailuak erabiliz gero, interferentziak sor daitezke hegazkinetan.



## **ITZALI TELEFONOA GASOLINA-ZERBITZUGUNEETAN**

Ez erabili telefonoa zerbitzuguneetan. Ez erabili erregaitik edo produktu kimikoetatik gertu.



## **ITZALI TELEFONOA LEHERGAIETATIK GERTU**

Ez erabili telefonoa leherketak giten dituzten lekuetan. Irakurri erabili buruzko mugak eta bete horren inguruko arau guztiak.



### ERABILI ZENTZUZ

Ez erabili telefonoa ohiko posizioan ez bada. Ez ukitu antena beharrezkoa ez bada.



### ZERBITZU TEKNIKO GAITUA

Zerbitzu tekniko gaituko langileek bakarrik instalatu edo konpondu behar dute ekipoa.



### OSAGARRIAK ETA BATERIAK

Erabili fabrikatzaileak onartutako osagarriak eta bateriak. Ez konektatu bateraezinak diren produktuak.



### BESTE GAILU BATZUEKIKO KONEXIOA

Beste gailu batekin konektatu nahi baduzu, irakurri dagokion erabiltzailearen gidaliburua, segurtasun-jarraibideak zein diren ongi jakiteko. Ez konektatu bateraezinak diren produktuak.



### SEGURTASUN-KOPIAK

Gogoan izan datu garrantzitsu guztien segurtasun-kopiak egin behar dituzula.






### URAREKIKO ERRESISTENTZIA

Zure telefonoak ezin du ura jasan. Ez busti produktua.





### DEIAK

Ziurtatu telefonoa piztuta eta martxan dagoela. Markatu telefono-zenbakia, baita aurrezenbakia ere, eta, ondoren, sakatu . Deia amaitzeko, sakatu . Dei bati erantzuteko, sakatu .

### LARRIALDI-DEIAK



Ziurtatu telefonoa piztuta eta martxan dagoela. Sakatu  behar adina alditan (adibidez, dei bat amaitzeko, menutik ateratzeko, etab.) pantaila ezabatzeko. Markatu larrialdi-zenbakia eta sakatu . Adierazi zure kokapena. Ez moztu deia hori eskatu arte.

Gailu honetako funtzioak erabiltzean, errespetatu legeak eta gainerako pertsonen pribatasuna eta legezko eskubideak.

## ■ Sare-zerbitzuak

Gidaliburu honetan deskribatzen den telefono mugikorra EGSM 900, GSM 1800 eta GSM 1900 sareetan erabiltzeko dago onartuta.

Hiru bandako funtzioa sarearen araberakoa da. Kontsultatu tokiko zerbitzu-operadoreari funtzio hori kontratatu eta erabil dezakezun.

Haririk gabeko telefono hau 3GPP GSM Release 99 terminala da eta (E)GPRS zerbitzua onartzen du eta GPRS Release 97 sareak ere onartzeko diseinatuta dago. Bestalde, ezin da GPRS Release 97 sare guztiekin funtzionaltasun osoa izatea bermatu. Informazio xeheagoa eskuratzeko, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin edo Nokiaren tokian tokiko banatzailearekin.

Gida honetan dauden ezaugarri batzuk sare-zerbitzuak dira. Telefonía mugikorreko zure operadoreari kontratatu beharreko zerbitzu bereziak dira. Sare-zerbitzuak erabili ahal izateko, operadorearekin kontratatu behar dituzu, eta horiek erabiltzeko behar diren jarraibideak eskuratu.



**Oharra:** Baliteke sare batzuek ez onartzea hizkuntzari dagozkion karaktere edo zerbitzu guztiak.

## ■ Osagarriei buruzko informazioa

Kargagailua erabili aurretik, egiaztatu modeloaren zenbakia, bateragarria den jakiteko. Gailu hau ACP-7, ACP-12 eta LCH-12 erabilia elikatzeko diseinatuta dago.



**Oharra:** Erabili bakarrik telefonoaren fabrikatzaileak telefono-modelo honentzat onartutako bateriak, kargagailuak eta osagarriak. Beste edozein mota erabiliz gero, telefonoaren onarpen edo berme guztiak bertan behera geratuko dira, eta arriskutsua izan daiteke.

Onartutako osagarriren bat badagoen jakiteko, jarri harremanetan banatzailearekin.

Edozein osagarriren elikatze-haria deskonektatzen duzunean, heldu entxufeari eta tira egin, ez egin tira haritik.

# Informazio orokorra

---

## ■ Nokia PC Suite-n softwarea

Nokia PC Suite softwarearekin, telefonoko kamerarekin, besteak beste, ateratako argazkiak kudea ditzakezu eta dei-seinale eta horma-irudi berriak sor ditzakezu. Horrez gain, argazkiak oinarri hartuta, teklatuko txantilo berriak sor ditzakezu.

## ■ Sarbide-kodeak

- **Segurtasun-kodea:** Kode hori telefonoarekin batera ematen da. Segurtasun-kodeak telefonoa baimenik gabe erabiltzetik babesten du. Aurrez definitutako kodea 12345 da.

Aldatu eta konfiguratu telefonoa *Ajustes de seguridad* menuko *Códigos de acceso* eta *Nivel de seguridad* funtzioen bidez eskatzeko. Gorde kode berria leku sekretu eta seguruan, telefonotik urrun.

- **PIN kodea:** Identifikazio pertsonaleko zenbakiak (Personal Identification Number, PIN) SIM txartelarekin ematen da eta baimenik gabe erabiltzetik babesten du. *Ajustes de seguridad* menuko *Petición del código PIN* funtzioa aktibatzen baduzu, telefonoa pizten den bakoitzean eskatuko dizu kodea.

PIN kodea hiru aldiz jarraian gaizki sartuz gero, SIM txartela blokeatu egingo da. Sartu PUK kodea eta sakatu **Aceptar**. Sartu PIN kode berria eta sakatu **Aceptar**. Sartu berriro kode berria eta sakatu **Aceptar**.

- **PIN2 kodea:** Kode hau SIM txartelarekin batera ematen da eta beharrezkoa da hainbat funtziotara sartzeko (adibidez, tarifazio-unitateen doikuntza).
- **PUK eta PUK2 kodeak:** Kodeak SIM txartelarekin entregatzen ez badizkizute, jarri harremanetan zure zerbitzu-operadorearekin.
- **Murrizketa-pasahitza:** Funtzio hau beharrezkoa da *Ajustes de seguridad* menuko *Servicio de restricción de llamadas* funtzioa erabiltzeko.

## ■ Memoria partekatua

Telefonoko funtzio hauek memoria parteka dezakete: aurkibidea, testu- eta multimedia-mezuak, *Galeria* menuko dei-irudiak eta -seinaleak, agendako oharrak eta jokoak eta Java™ aplikazioak. Funtzio horietako edozein erabiliz gero, memoria partekatzen duten funtzioen memoria murriz daiteke. Edozein funtzio gehiegi erabiltzen bada gertatzen da hori.

Adibidez, irudi-pila bat jasotzean, baliteke memoria partekatu guztia erabiltzea, eta memoria beterik dagoela adieraz dezake telefonoak. Kasu horretan, ezabatu partekatutako memoria erabiltzen duen informazioaren zati bat edo gordetako sarrera batzuk.

Memoria partekatuan zenbat espazio erabili den eta zenbat dagoen libre egiazta dezakezu *Ajustes del teléfono* menuko *Estado de la memoria* funtzioa erabilia. Ikus 78. orrialdea.

## ■ Edukiak eta aplikazioak deskargatzea

Eduki berriak (adibidez, irudiak eta dei-seinaleak) eta Java aplikazioak deskarga ditzakezu telefonora (sare-zerbitzua), Interneteko guneetatik.

1. Hautatu *Aplicaciones* edo *Galería* menuan deskargatzeko funtzioa. Deskargatzeko funtziora joateko, ikus deskribapenak dagozkien menuetan.

Gogokoen zerrenda bistaratuko da. Hautatu *Más favoritos* aukera *Servicios* menuan erabilgarri dauden gogokoak ikusteko.

2. Hautatu joan nahi duzun nabigatzailearen orrialdeko gogokoa. Konexioa ezarri ezin bada, aldatu *Servicios* menuan aktibo dauden doikuntza-multzoa eta saiatu berriro. Segi zerbitzuak emandako jarraibideak.

Nabigazio-zerbitzuen erabilgarritasunaren, prezioen eta tarifen berri izateko, jarri harremanetan zure sare-operadorearekin edo zerbitzu-hornitzailearekin.



Kontuan izan Nokiak ez duela inolako bermerik ematen Nokiarenak ez diren guneetatik datozen aplikazioentzat. Java aplikazioak horietatik deskargatzea erabakitzen baduzu, beste edozein lekutan hartuko zenituzkeen ardura berak hartu beharko dituzu segurtasunari eta edukiari dagokienez.

## ■ (E)GPRS

GPRSa (General Packet Radio Service) sare-zerbitzu bat da, eta, horri esker, telefono mugikorra erabil daiteke Internet Protokoloan (IP) oinarritutako sare baten bidez datuak bidaltzeko eta jasotzeko.



GPRS konexioaren bidez, besteak beste, multimedia-mezuak bidali eta jaso ditzakezu (sare-zerbitzua).

EGPRS (Enhanced GPRS) GPRSaren antzekoa da, baina harekin konexio azkarragoak egin daitezke.

(E)GPRS zerbitzua erabiltzeko, harpidetu sare-operadorean edo zerbitzuaren hornitzailean, eta gorde (E)GPRS sarean erabili nahi dituzun funtzioen GPRS doikuntzak. Prezioei, erabilgarritasunari edo datuak transferitzeko abiadurari buruzko informazioa lortzeko, jar zaitez harremanetan zure sare-operadorearekin edo zerbitzu-hornitzailearekin.

Kontuan izan GPRS datu-garraiatzaile gisa hautatu baduzu, telefonoak EGPRS erabiliko duela GPRSaren ordez sarean erabilgarri badago. Ezingo duzu EGPRSaren eta GPRSaren artean hautatu, baina aplikazio batzuetarako (adibidez, WAP nabigazioa edo XHTML orriak), GPRS edo *Datos GSM* (CSD, Circuit Switched Data) hauta dezakezu.

(E)GPRS konexioan bistaratzen diren adierazleei buruzko informazioa izateko, ikus 75. orrialdea.

# 1. Zure telefonoa

## ■ Teklak

### 1. Pizteko tekla

Telefonoa piztu eta itzaltzen du.

### 2. Lau norabidetako desplazamendu-teklak

, ( )ta ( )



### 3. Aukeraketa-teklak


Tekla bakoitzak pantailan tekla horren gainean bistaritzen den funtzioa egiten du.

### 4. tekla telefono-zenbaki bat markatzen du eta dei bati erantzuten dio. Tekla hori pantaila zuri dagoela sakatzen baduzu, markatutako azken zenbakiak bistaratuko dira.

### 5. aktibo dagoen dei bat amaitu edo deiarri uko egiten dio. Edozein funtziotatik ateratzeko balio du.

### 6. - teklek zenbakiak eta karaktereak sartzen dituzte.


 eta  hainbat gauzatarako erabiltzen dira hainbat funtziotan.



## ■ Konektoreak, linterna eta kamera

### 1. Kargagailuaren konektorea


2. Linterna
3. Pop-Port™ konektorea, osagarri bateragarriak telefonoan konektatzeko.
4. Infragorrien ataka, haririk gabeko konexioa ezartzeko, gailu bateragarriarekin.
5. Kameraren lentea.



## ■ Pantaila zuria eta pantailako adierazlea



Telefonoaren pantaila zuri dago, erabiltzeko prest dagoenean eta karaktererik sartu ez denean. Telefonoko funtzioei dagozkien adierazleak eskuliburu honetan deskribatzen dira.

1. Bistaratu telefonoa erabili nahi duzun sarearen izena, edo operadorearen logotipoa.
2. Sare zelularrak uneko kokapenean seinalearen zein intentsitate duen adierazten du. Haga zenbat eta altuagoa egon, orduan eta intentsitate handiagoa izango du seinaleak.



3. Bateriaren karga-maila adierazten du. Haga zenbat eta altuagoa egon, orduan eta potentzia gehiago dago baterian.
4. Ezkerreko aukeraketa-tekla **Menú** da.
5. Eskuineko aukeraketa-tekla **Guía** edo *Accesos directos personales* menuko *Tecla de selección derecha* doikuntzan hautatutako funtzioa (adibidez, **Ir a**) da (ikus 73. orrialdea), edo sare-operadorearen izena edo logotipoa eduki dezake.
  - **Guía** *Guía* menua irekitzen du.
  - **Ir a** aukerak *Accesos directos personales* menuko *Seleccionar opciones de Ir a* funtzioarekin definitutako funtzioak bistaratzen ditu.
  - Operadorearen tekla espezifikoa erabilita, operadorearen hasierako orrira joan ahal izango duzu.

## ■ Linterna

Telefonoaren azpiko aldean linterna bat dago. Linterna pizteko (teklatura blokeatuta ez dagoenean), luze sakatu  tekla. Itzaltzeko, sakatu .

## 2. Oinarrizko kontzeptuak

---

### ■ SIM txartela eta bateria jartzea

- Ez utzi SIM txartel txikia haurren eskueran.


SIM txartela eta haren kontaktuak oso erraz honda daitezke harramazka edo tolesturekin; kontuz erabili behar duzu, beraz, telefonoan sartzerakoan edo ateratzerakoan.

SIM txartela instalatu aurretik, ziurtatu telefonoa itzalita dagoela eta ez duela osagarririk konektatuta; ondoren, atera bateria.

1. Atzeko karkasa kentzeko:


Sakatu atzeko karkasa irekitzeko botoia (1) telefonoaren goiko aldera eta atera karkasa telefonotik (2).

2. Bateria kentzeko, altxa ezazu ertzetik behatzarekin (3).




3. SIM txartelaren konpartimentua irekitzeko, atzera ekarri (4) eta altxa (5).


Sartu SIM txartela bere tokian (6), alakatutako izkina kameraren lentera begira. Ziurtatu txartelaren urre-koloreko kontaktua behera begira dagoela eta txartela behar bezala sartuta dagoela.



4. Itxi SIM txartelaren konpartimentua (7) eta aurrera ekarri, blokeatzeko (8).




5. Jarri bateria (9).



6. Atzeko karkasa berriro jartzeko:

Jarri atzeko karkasaren goiko aldea telefonoaren goiko aldetik (10). Egin bultzatzeko karkasaren goiko aldea telefonorantz, behar bezala sartu arte (11).



## ■ Karkasa aldatzea

Tapa aldatu aurretik, egiazta ezazu telefonoa itzalita eta kargagailutik edo beste edozein gailutatik deskonektatuta dagoela. Saiatu osagarri elektronikoak ez ukitzen tapak aldatzen dituzun bitartean. Gorde eta erabili beti telefonoa tapak jarrita dituela.


Telefonoarekin batera teklatuko txantiloï batzuk ematen dira, telefonoaren itxura berehala aldatu ahal izateko.




**Oharra:** Erabili inprimagailu estandarretan erabiltzen den paper arrunta (60-135 g/m<sup>2</sup>-ko gramajea duena), gehienez ere 0,3 mm-ko lodierakoa. Paperean erabilitako koloreak edo tintak ez dute partikula metalikorik eduki behar.

1. Kendu bateria 20. orrian azaltzen den bezala.


2. Aurreko karkasa kentzeko, tira egin karkasaren goiko aldetik (1) eta altxa ezazu.



3. Kendu atzeko karkasako txantiloio zaharra eta aurreko karkasako txantiloia eta teklak babesteko pieza.




4. Jarri txantiloio berria aurreko karkasan (2).




5. Jar ezazu teklak babesteko pieza txantiloian (3).  
Ziurtatu teklak babesteko pieza behar bezala jarrita dagoela.

6. Aurreko karkasa berriro jartzeko, jar ezazu karkasaren goiko aldea telefonoaren goiko aldearen gainean, (4) eta presio egin kontu handiz telefonoaren beheko aldean, bere tokian sartu arte (5).






7. Jarri teklatuaren txantiloia atzeko karkasan eta irristarazi atzeko karkasaren erdiko eta beheko aldeetan dauden gidarietan (6).



8. Atzeko karkasa berriro jartzeko, eman SIM txartela eta bateria instalatzeko 6. pausoa (20. orrialdea). Ziurtatu atzeko karkasa behar bezala jarrita dagoela.

## ■ Bateria kargatzea

1. Konektatu kargagailuaren haria telefonoaren oinarriko konektorera.
2. Konektatu kargagailua korrante alternoko hartune batera.



Karga-adierazlearen barra mugitzen hasiko da.

Bateria erabat deskargatuta badago, zenbait minutu pasa daitezke pantailan karga adierazlea bistaratu arte. Telefonoa erabil daiteke kargatzen den bitartean.

- Telefonoaren emandako BLD-3 bateria erabat kargatzeko bi ordu inguru behar dira, ACP-7 kargagailua erabiliz gero.

3. Karga adierazlearen barrak mugitzeari uzten dionean, bateria erabat kargatuta egongo da. Deskonektatu kargagailua korrante alternoko hartunetik eta telefonotik.

## ■ Telefonoa piztea eta itzaltzea



**Oharra:** Ez piztu telefonoa mugikorrek erabiltzea debekatuta dagoen lekuetan edo interferentziak sor ditzakeen edo arriskuren bat ekar dezakeen lekuetan.

Luze sakatu pizteko tekla

- Telefonoak PIN kodea edo segurtasun-kodea eskatzen bada, sartu eta sakatu **Acceptar**.
- Kontuan izan SIM txartela behar bezala sartuta egonda ere telefonoaren pantailan *Inserte la tarjeta SIM* edo *Tarjeta SIM no admitida* oharra agertzen bada, sare-operadorearekin edo zerbitzu-hornitzailearekin jarri beharko duzula harremanetan. Telefonoak ez du onartzen 5 volt-eko SIM txartelik eta baliteke txartela aldatu behar izatea.





**TELEFONOAK BEHAR BEZALA FUNTZIONATZEKO AHOLKUAK:**  
Telefonoak antena du. Irrati-uhinen bidezko beste transmisio-gailu batzuekin gertatzen den bezala, telefonoa piztuta dagoenean, ez ukitu antena (irudiko gune urdina) beharrezkoa ez bada. Gorputzak antena ukitzeak deiaren kalitateari eragiten dio, eta telefonoak funtzionatzeko behar duen potentzia-maila inolako beharrik gabe igoaraz dezake. Hitz egiten ari zarenean antena ukitzen ez baduzu, antenaren errendimendua optimizatu egingo da, eta telefonoko elkarrizketaren iraupena ere bai.





### 3. Oinarrizko funtzioak



---

#### ■ Deitzea

1. Sartu hartzailaren telefono-zenbakia, baita aurrezenbakia ere. Okerreko karaktere bat sartzen baduzu, sakatu  (edo ) kurtsorea mugitzeko, eta **Borrar** kurtsoarean ezkerreko aldean dagoen karakterea ezabatzeko.

**Nazioarteko deiak egiteko:** Sakatu  bi aldiz + karakterea idazteko eta sartu herrialdearen kodea, aurrezenbakia (behar izanez gero, kendu ezkerreko zeroa) eta telefono-zenbakia.

2. Sakatu  zenbaki horretara deitzeko.




**Bolumena doitzeko:** Erabili  bolumena igotzeko edo  jaisteko.

**Telefonoaren esku libreko kita erabiltzeko:** Ikus **Bozgorailuak erabiltzea** atala, 30. orrialdean.

3. Sakatu  deia amaitzeko edo deitzeko ahalegina bertan behera uzteko.



Ikus, halaber, **Deian erabilgarri dauden funtzioak** 29. orrialdean.


#### Dei bat aurkibidearen bidez egitea

Sakatu  pantaila zuri dagoela. Sartu telefono-zenbakiarekin gordetako izenaren lehen letra edo letrak. Mugitu nahi duzun izeneraino  edo  teklak erabilita.




Sakatu  deia egiteko.


### Markatutako azken zenbakietara deitzea

Pantaila zuri dagoela, sakatu  behin, dei egin diezun edo deitzen saiatu zaren azken hamar zenbakien zerrenda bistaratzeko. Mugitu nahi duzun zenbaki edo izenera iritsi arte, eta sakatu  deitzeko.



Markatutako azken zenbakietara deitzeko, sakatu bitan  tekla, pantaila zuri dagoela.


### Ahots-postontzira deitzea

Pantaila zuri dagoela ahots-postontzira deitzeko (sare-zerbitzua), luze sakatu  tekla edo sakatu  eta  Ikus, halaber, Ahots-mezuak 55. orrialdean.


Ahots-mezu bat jasotzen duzunean,  ikonoa pantailaren goiko aldean bistara daiteke (sare-zerbitzua). Sakatu **Escuchar** ahots-postontzira deitzeko.




### Telefono-zenbakia bizkor markatzea

 tik  rako teklei telefono-zenbaki bat esleitu badiezu (ikus **Markaketa bizkorra**, 66. orrialdean), honela dei dezakezu telefono-zenbaki horietara:

- Pantaila zuri dagoela, sakatu nahi duzun zenbaki-tekla eta, ondoren . EDO:
- *Maricación rápida* funtzioa aktibatuta badago (ikus 77. orrialdea), sakatu zenbaki-tekla deia hasi arte, pantaila zuri dagoela.


## Dei bat aktibo dagoela, beste dei bat egitea (sare-zerbitzua)

Dei batean zehar, sakatu **Opciones** eta hautatu *Llamada nueva*. Sartu telefono-zenbakia edo bilatu aurkibidean eta sakatu **Llamar** edo . Lehen deia zain geratuko da.

- Dei batetik bestera igarotzeko, sakatu **Conmutar** edo  Aktibo dagoen deia amaitzeko, sakatu  edo **Opciones** eta hautatu *Finalizar llamada*. Bi deiak amaitzeko, sakatu **Opciones** eta hautatu *Finaliz. todas llam..*
- Bi deiak multikonferentzia batean elkartzeko (sare-zerbitzua), sakatu **Opciones** eta hautatu *Multiconferen..* Solaskideetako batekin elkarrizketa pribatu bat edukitzeko, hautatu *En privado* eta ondoren aukeratu nahi duzun solaskideaz. Multikonferentziako deiak berriro elkartzeko, sakatu *Multiconferencia*. Deia esekitzeko, sakatu .

## ■ Sartzen ari den deiari erantzutea edo deia ez hartzea

Sakatu  sarrerako deiari erantzuteko. Deiaren seinalea isilarazi nahi baduzu, sakatu **Silenciar**.

Deia ez hartzeko, sakatu , edo **Opciones** eta hautatu *Rechazar*. Onartu ez den deia desbideratu egingo da, deiak desbideratzeko aukera bat aktibatuta baduzu, adibidez, *Desvío si ocupado* aukera.

### Deia zain uzteko aukera

Dei bati erantzun diezaiokezu, beste norbaitekin ari zarenean, betiere *Ajustes de llamada* menuko *Llamada en espera* funtzioa aktibatuta baduzu (sare-zerbitzua).

Zain dagoen deia erantzuteko, sakatu **Respond.** edo ... Lehen deia zain geratuko da.

## ■ Deian erabilgarri dauden funtzioak

Deian, sakatu **Opciones** funtzio hauetara sartzeko:




*Silenciar micrófono* edo *Activar micrófono*, *Finalizar llamada*, *Finaliz. todas llam.*, *Guía*, *Menú*, *Retener* edo *Activar*, *Llamada nueva* (sare-zerbitzua), *Multiconferencia* (sare-zerbitzua), *En privado* (sare-zerbitzua), *Responder*, *Rechazar*, *Conmutar* (sare-zerbitzua), *Enviar DTMF*, *Altavoz* edo *Teléfono*, *Bloquear teclado*, *Transferir* (sare-zerbitzua), *ML portátil*, *Manos libres*, *Grabar*, *Vol. auto activado* edo *Vol. auto desactiv.*


Hautatu

- *Vol. auto activado* / *Vol. auto desactiv.*, bolumenaren kontrol automatikoa aktibatzeke edo desaktibatzeke. Ikus Deia **ren** **doikuntzak**, 76. orrialdean.
- *Transferir*, zain dagoen deia aktibo dagoen deiarekin konektatzeko eta deia deskonektatzeko.
- *ML portátil* o *Manos libres*, aktibo dagoen deia dagokion osagarri bateragarriarekin konektatzeko, osagarri hori telefonora konektatuta dagoenean.

## ■ Teklatua blokeatzea

Funtzio honek teklatua blokeatzen du, teklak konturatu gabe saka ez daitezen, adibidez, telefonoa poltsan daramazunean.

Teklatua blokeatzeko, sakatu **Menú** pantaila zuri dagoela, eta, ondoren, sakatu  1,5 segundo igaro aurretik. Blokeatzea aktibatuta dagoenean,  ikonoa agertuko da pantailaren goiko aldean. Teklatua desblokeatzeko, sakatu **Desbloq.** eta  1,5 segundo igaro aurretik.

Teklatua blokeatuta dagoenean,  sakatuta erantzun diezaiokizu deia. Hitz egiten ari zarela, telefonoa normal erabil daiteke. Deia amaitzean edo ez onartzean, teklatua automatikoki blokeatuko da.


Halaber, denbora bat pasatutakoan telefonoa automatikoki blokeatzeko moduan konfigura daiteke. Ikus *Teklatua automatikoki blokeatzea* 79. orrialdean.



**Oharra:** Teklatua babesteko aukera aktibatuta dagoenean, telefonoan programatutako larrialdi-zenbakietara dei daiteke (adibidez, 112 zenbakira edo beste larrialdi-zenbaki ofizial batera). Markatu larrialdi-zenbakia eta sakatu. Azken digitua sakatu arte ez da zenbakirik bistaratuko.

## ■ Bozgorailuak erabiltzea

Telefonoak bozgorailu du, telefonoaren esku libreko kita erabil dezazun hitz egiteko. Bozgorailu-moduan erabiltzen ari zarenean, ez jarri telefonoa belarri ondoan, soinua oso altua izan baitaiteke.

**Bozgorailua aktibatzeko:** Sakatu **Opciones** deiak iraun bitartean eta hautatu *Altavoz*, edo sakatu *Altavoz* erabilgarri badago. Bozgorailua aktibatuta badago,  bistaratuko da pantaila zuri dagoenean.

**Bozgorailua desaktibatzeke:** Sakatu *Opciones* eta hautatu *Teléfono*, edo sakatu *Teléfono* erabilgarri badago.

## ■ Testua idaztea

Testua idatz dezakezu, adibidez, mezuetan edo agendako oharretan, testua sartzeko ohiko modua erabilia edo testu prediktiboaren bidez.

### Testu prediktiboarekin idaztea


Testu prediktiboa idaztean, karaktere bakoitzeko letra-tekla behin bakarrik sakatuta idatz ditzakezu karaktereak Idazteko metodo hau telefonoan sartutako hiztegi batean dago oinarrituta.

### Testu prediktiboaren funtzioa aktibatzea eta desaktibatzea

Idazten hastera zoazenean, sakatu *Opciones* eta aukeratu *Diccionario*.

- Testu prediktiboarekin idazteko, aukeratu hiztegien aukera-zerrendako hizkuntza bat.
- Testua sartzeko ohiko metodoa berriro erabiltzeko, sakatu *Desact. diccionario*.



**Iradokizuna:** Testu prediktiboaren aukera bizkor aktibatu edo desaktibatzeke, sakatu bi aldiz  edo luze sakatu *Opciones* tekla.

### Testu prediktiboaren funtzioa

Egiaztatu  adierazlea pantailaren goiko aldean bistaratu dela.




1. Idatzi hitz bat (2) tik (9) ra arteko teklak erabilia. Letra bakoitza idazteko, sakatu dagokion tekla behin bakarrik. Hitza alda daiteke tekla bat sakatzen duzun bakoitzean. Testua idazteari buruz informazio gehiago lortzeko, ikus 33. orrialdea.
  - Puntuazio-zeinu arrunt bat idazteko, sakatu (1) eta, ondoren, (+) behin eta berriro. EDO: Luze sakatu (+) tekla, joan nahi duzun karaktereraino eta sakatu Utilizar edo (5).
  - Karaktere bezeriak idazteko: Luze sakatu (+) tekla, joan nahi duzun karaktereraino eta sakatu Utilizar edo (5).
2. Pantailan bistaratutako hitza zuk idatzi nahi duzuna bada, berretsi (6) sakatuz tarte bat sartuta eta idatzi hurrengo hitza.
  - Hitza ez bada zuk idatzi nahi duzuna, sakatu Opciones, hautatu Coincidencias eta nahi duzun hitza, eta, ondoren, sakatu Utilizar. EDO: Sakatu (+) behin eta berriro hitza agertu arte.
  - Hitzaren atzean ? karakterea bistaratzen bada, horrek esan nahi du hiztegian ez dagoela sakatutako teklei dagokien beste hitzik. Hitz bat hiztegian sartzeko: Sakatu Escribir tekla, idatzi hitza eta sakatu Guardar.
3. Testu prediktiboarekin idaztean, sakatu Opciones funtzio hauetara sartzeko:
  - *Insertar palabra / Editar palabra*: Hiztegian hitzak sar ditzakezu, testu prediktiboaren funtzioa erabilia. *Insertar palabra* bistaratzen da, azpimarratutako hitzik ez dagoenean, hau da, editatzeko hautatuta ez dagoenean. *Editar palabra* bistaratzen da, hitz bat azpimarratuta dagoenean.



- *Insertar símbolo*: zerrenda bateko karaktere berezi bat hautatzeko aukera ematen du.

### Hitz konposatuak idaztea


Idatzi hitzaren lehen zatia eta berretsi  sakatuta. Egin berriro urrats horiek hitzaren azken zatirako.




### Ohiko testuaren funtzioa

Egiaztatu  adierazlea pantailaren goiko aldean bistaratu dela. Sakatu tekla bat behin edo behin baino gehiagotan, nahi duzun karakterea pantailan bistaratu arte. Kontuan izan erabil ditzakezun karaktere guztiak ez direla tekletan agertzen. Erabil ditzakezun karaktereak *Ajustes del teléfono* menuko *Idioma del teléfono* doikuntzaren araberakoak dira. Ikus 78. orrialdea.

- Sartu nahi duzun hurrengo letra sartu berri duzun tekla berean badago, itxaron kurtsorea agertu arte, eta, ondoren, idatzi letra.
- Puntuazio-zeinu bat edo karaktere bereziren bat gehitzeko, sakatu  behin eta berriro. EDO: Sakatu , joan nahi duzun karakterera eta sakatu **Utilizar**.

### Testua idazteko jarraibide orokorrak

- Tarte bat sartzeko, sakatu .
- Kurtsorea mugitzeko, sakatu desplazamendu-tekla.
- Kurtsorearen ezkerreko aldeko karakterea ezabatzeko, sakatu **Borrar**. Luze sakatu **Borrar** tekla, zenbait karaktere ezabatzeko.

- Maiuskulen eta minuskulen artean txandakatzeko, sakatu  behin eta berriro, eta egiaztatu, betiere, pantailaren goiko aldeko **Abc** adierazlea zein egoeratan dagoen.
- Zenbaki bat sartzeko, luze sakatu nahi duzun zenbaki-tekla. Zenbakiak sartzeko, eduki sakatuta  tekla eta sartu zenbakiak. Testua idazten segitzeko, luze sakatu  tekla.

## 4. Menua erabiltzea

---



Telefonoak funtzio ugari eskaintzen ditu, eta horiek menuetan multzokatzen dira.

Menuko aukera gehienek laguntza-testu labur bat dute. Laguntza-testua ikusteko, joan zaitetz nahi duzun menuko funtzioraino eta itxaron 15 segundo inguru.

Laguntzako testua *Ajustes del teléfono* menuko *Activación de texto de ayuda* funtzioaren bidez aktibatu edo desaktibatu daiteke. Ikus 78. orrialdea.

### ■ Menuko funtzio batean sartzea

Menuan gora eta behera ibiliz

1. Sakatu *Menú* pantaila zuri dagoela.
2. Mugitu  edo  teklak erabilita, menu nagusira, adibidez, *Ajustes* aukerara eta sakatu *Seleccion*. irekitzeko.

Menuaren ikuspegia *Cuadrícula* denean, edozein desplazamendu-tekla erabil dezakezu menu nagusietan mugitzeko. Menuaren ikuspegia aldatzeko, ikus *Vista de los menús* Pantailaren doikuntzak atalean 71. orrialdean.

3. Mugitu azpimenua, adibidez *Ajustes de llamada* aukerara, eta sakatu *Seleccion*..

Era berean, azpimenuak beste azpimenu batzuk baditu, adibidez, *Marcación rápida*, eman berriro pausoa.

4. Mugi zaitez aukera batera, adibidez *Desactivar* aukerara, eta sakatu *Seleccion..*

Sakatu *Atrás* menuko aurreko mailara itzultzeko, edo sakatu *Salir* edo ... pantaila zurira itzultzeko.

#### **Metodo laburtuaren zenbakiaren bidez**

Menuak, azpimenuak eta aukerak zenbakituta daude. Metodo laburtuaren zenbakia pantailaren goiko eskuineko aldean bistaratzen da.

Sakatu *Menú* pantaila zuri dagoela. Bi segundo igaro baino lehen, idatzi sartu nahi duzun menu nagusiari dagokion metodo laburtuaren zenbakia. Eman pauso berberak azpimenuetarako eta aukeretarako. 1.Menuan sartzeko, sakatu *Menú* eta idatzi

 eta .

## ■ Menuko funtzioen zerrenda

### 1. Mensajes

#### 1. Mensajes de texto

1. Crear mensaje
2. Buzón de entrada
3. Crear correo SMC
4. Elemen. enviados
5. Archivo
6. Plantillas
7. Carpetas propias
8. Borrar mensajes

#### 2. Mensajes multim.

1. Crear mensaje
2. Buzón de entrada
3. Buzón de salida
4. Elemen. enviados
5. Elem. guardados
6. Borrar mensajes

#### 3. Mensajes de voz

1. Escuchar los mensajes de voz
2. Número del buzón de voz

#### 4. Mensajes de info

1. Servicio de información
2. Temas
3. Idioma

4. Temas de info guardados en SIM<sup>1</sup>
  5. Leer<sup>2</sup>
  5. Ajustes mensajes
    1. Mensajes de texto
    2. Mensajes multimed.
    3. Otros ajustes
  6. Comandos servicio
- 2. Reg. Llamadas**
1. Llamadas perdidas
  2. Llamadas recibidas
  3. Llamadas enviadas
  4. Borrar listas de últimas llamadas
    1. Todas
    2. Perdidas
    3. Recibidas
    4. Enviadas
  5. Duración de la llamada
    1. Duración de la última llamada
    2. Duración de las llamadas recibidas
    3. Duración de las llamadas enviadas
    4. Duración de todas las llamadas
    5. Poner a cero los temporizadores

---

1. Informazio-mezen gaiak SIM txartelean gorde daitezkeenean bakarrik bistaratuko da.  
2. Informazio-mezuak iritsi badira bakarrik bistaratuko da.

6. Contador de datos de GPRS
  1. Datos enviados en la última sesión
  2. Datos recibidos en la última sesión
  3. Todos los datos enviados
  4. Todos los datos recibidos
  5. Poner los contadores a cero
7. Temporizador de conexión de GPRS
  1. Duración de la última sesión
  2. Duración de todas sesiones
  3. Poner los temporizadores a cero

### 3. Guía

1. Buscar
2. Añadir contacto
3. Borrar
4. Copiar
5. Ajustes
  1. Memoria en uso
  2. Vista de la guía
  3. Estado de la memoria
6. Marcación rápida
7. Números info<sup>1</sup>
8. Números servicio<sup>1</sup>
9. Números propios

---

1. SIM txartelak onartzen badu bistaraten da. Horien erabilgarritasunari buruzko informazio gehiago eskuratu nahi baduzu, jarri harremanetan sare-operadorearekin edo zerbitzu-hornitzailearekin.



## 10. Grupos llamantes

### 4. Ajustes

1. Modos
2. Ajustes de tonos
  1. Aviso de llamada entrante
  2. Señal de llamada
  3. Volumen de señal de llamada
  4. Aviso por vibración
  5. Tono de aviso para mensajes
  6. Sonido del teclado
  7. Tonos de aviso
  8. Aviso para
3. Ajustes de la pantalla
  1. Papel tapiz
  2. Esquemas de color
  3. Logotipo del operador
  4. Tiempo de espera de salvapantallas
  5. Brillo de la pantalla
  6. Vista de los menús
4. Ajustes de hora y fecha
  1. Reloj
  2. Fecha
  3. Actualización auto de fecha y hora
5. Accesos directos personales
  1. Tecla de selección derecha
  2. Seleccionar opciones de Ir a
  3. Organizar funciones de Ir a

## 6. Conectividad

1. Infrarrojos
2. GPRS

## 7. Ajustes de llamada

1. Desvío de llamadas
2. Control auto de volumen
3. Cualquier tecla responde
4. Rellamada automática
5. Marcación rápida
6. Llamada en espera
7. Resumen tras la llamada
8. Envío de identidad del llamante
9. Línea para llamadas salientes<sup>1</sup>

## 8. Ajustes del teléfono

1. Idioma del teléfono
2. Estado de la memoria
3. Bloqueo auto del teclado
4. Presentación de info de célula
5. Saludo inicial
6. Selección de red
7. Confirmar acciones de servicio de SIM
8. Activación de texto de ayuda
9. Tono inicial

## 9. Ajustes de accesorios<sup>2</sup>

- 
1. Zerbitzu horien erabilgarritasunari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan zure sare-operadorearekin edo zure zerbitzu-hornitzailearekin.
  2. Telefonoa osagarri bateragarri batera konektatuta badago edo konektatuta egon bada bakarrik bistaratuko da.

10. Ajustes de seguridad
  1. Petición del código PIN
  2. Servicio de restricción de llamadas
  3. Marcación fija
  4. Grupo cerrado de usuarios
  5. Nivel de seguridad
  6. Códigos de acceso
11. Restablecer los valores iniciales

## 5. Galería

1. Ver carpetas
2. Añadir carpeta
3. Borrar carpeta
4. Renombr. carpeta
5. Lista derechos uso
6. Descargas Galería

## 6. Multimedia

1. Cámara
  1. Foto estándar
  2. Foto retrato
  3. Modo noche
  4. Autotemporizador
  5. Ajustes
2. Radio
3. Grabadora

## **7. Organizador**

1. Alarma
2. Agenda
3. Calculadora

## **8. Aplicaciones**

1. Juegos
2. Colección

## **9. Servicios**

1. Inicio
2. Favoritos
3. Buz. entrada serv.
4. Enlaces descargas
5. Ajustes
6. Ir a dirección
7. Borrar la caché

## **10. Ir a**

## **11. Servicios SIM<sup>1</sup>**

---

1. SIM txartelak onartzen badu bakarrik bistaratuko da. Izena eta edukia SIM txartelaren araberakoak dira.

## 5. Menuko funtzioak

---

### ■ Mezuak (1. menua)



Testu-mezuak, multimedia-mezuak eta mezu elektronikoak irakurri, idatzi, bidali eta gorde ditzakezu. Mezuak karpetatari antolatzen dira.

#### Testu-mezuak eta irudidun mezuak (SMS)

SMS zerbitzuaren bidez (Mezu laburren zerbitzua), telefonoak zenbait testu-mezu arruntekin osatutako kateatutako mezuak bidali eta jaso ditzake (sare-zerbitzuarekin). Horrek mezuen fakturaztean eragina izan dezake.


Testu-mezuek irudiak izan ditzakete. Irudia duen mezu bakoitzak zenbait testu-mezu ditu. Beraz, mezu bat irudiekin bidaltzea testu-mezu bat bidaltzea baino garestiagoa izan daiteke.

Testu-mezuak edo irudiak dituzten mezu bidaltzeko, aurrez mezu-zentroko zenbakia gorde beharko duzu, ikus [Mezuen doikuntzak 55. orrialdean](#).





**Oharra:** Sare-operadoreak edo zerbitzu-hornitzaileak ematen badu bakarrik erabil daiteke funtzio hau. Mezuak irudiekin bidaltzeko funtzioa eskaintzen duten telefonoek bakarrik jaso eta bistara ditzakete mezuak irudiekin.

#### Mezuak idaztea eta bidaltzea

1. Sakatu **Menú** pantaila zuri dagoela eta hautatu *Mensajes*, *Mensajes de texto* eta *Crear mensaje*. **EDO:** Sakatu  pantaila zuri dagoela.
2. Idatzi mezu bat. Ikus [Testua idaztea](#), 31. orrialdean.

Mezuaren karaktere-kopurua eta kateatutako mezuen zati-kopurua pantailaren goiko eskuineko aldean agertzen dira, adibidez, 120/2. Karaktere bereziek (Unicode), adibidez "á", beste karaktereek baino leku gehiago har dezakete mezuan.

- Mezuan irudi bat sartzeko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Insertar gráfico*. Joan sartu nahi duzun irudiraino eta sakatu **Ver** eta **Insertar**.
  - Testua eta irudia batera ikusteko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Vista previa*. Irudia aldatzeko edo mezua ezabatzeko, sakatu **Opciones** eta hautatu nahi duzun funtzioa.
  - Mezuaren oinarri gisa aurrez zehaztutako testua erabiltzeko, sakatu **Opciones**, hautatu *Usar plantilla* eta, ondoren, nahi duzun txantiloia.
  - Telefono-aurkibidean zenbakia sartzeko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Insertar número*. Sakatu **Buscar** edo  eta hautatu aurkibideko zenbakia.
  - Aurkibideko izena sartzeko, sakatu **Opciones**, hautatu *Insertar contacto*, joan nahi duzun izeneraino eta sakatu **Opciones**. Izenarekin gordetako zenbakiren bat edo testu-elementuren bat sartu nahi baduzu, hautatu *Insertar contacto* edo *Ver detalles*.
  - Mezua *Archivo* karpetan edo *Carpetas propias* karpetaren barruan sortutako beste edozeinetan gordetzeko, sakatu **Opciones** eta hautatu *Guardar mensaje*.
3. Mezua bidaltzeko, sakatu  edo **Opciones** eta hautatu *Enviar*, sartu hartzailearen telefono-zenbakia edo bilatu aurkibidean eta sakatu **Aceptar**.
- Beste aukera bat hau da: Sakatu **Opciones** eta hautatu *Opciones de envío*.  
Hautatu

- *Enviar a varios*, mezua zenbait hartzaileri bidaltzeko. Joan nahi duzun hartzailearen izeneraino eta sakatu **Enviar**. Mezua zuk nahi duzun hartzaile guztiei bidali eta gero, sakatu **Hecho**.
- *Modo de envío*, mezua aurretik definitutako doikuntzekin bidaltzeko. Ikus **Mezuen doikuntzak**, 55. orrialdean.

Bidalitako mezua *Elemen. enviados* karpetan gordetzen da.



**Oharra:** SMS sare-zerbitzuaren bidez mezuak bidaltzean, baliteke telefonoan *Mensaje enviado* testua agertzea. Horrek esan nahi du telefonoak mezua bidali duela telefonoan programatutako mezu-zentroaren zenbakira. Ez du esan nahi hartzaileak mezua jaso duenik. SMS zerbitzuei buruzko informazio xeheagoa nahi baduzu, kontsultatu zure zerbitzu-hornitzaileari.

## Mezu elektronikoak idaztea eta bidaltzea

Mezu elektronikoak SMS bidez bidaltzeko aukera izan aurretik, behar diren doikuntzak gorde beharko dituzu, adibidez, *Mensajes enviados como* eta *Servidor de correo*. Informazio zehatzagoa lortzeko, ikusi **Mezuen doikuntzak atala** 55. orrialdean.

Posta elektronikoaren zerbitzuaren erabilgarritasunari buruzko informazioa eskuratzeko edo zerbitzu horretan harpidetzeko, jarri harremanetan zure sare-operadorearekin edo zerbitzu-hornitzailearekin. Helbide elektroniko bat telefono-aurkibidean jasotzeko, ikus **Izen bati lotutako zenbakiak eta testu-elementuak memorian sartzea** 62. orrialdean.


1. Sakatu **Menú**, aukeratu **Mensajes**, *Mensajes de texto* eta *Crear correo SMC*.


2. Sartu hartzailearen helbide elektronikoa edo bilatu aurkibidean, eta sakatu **Aceptar**.
3. Nahi izanez gero, mezuaren gaia idatz dezakezu, eta sakatu **Aceptar**.
4. Idatzi mezu elektronikoa.
5. Mezua bidaltzeko, sakatu **Opciones**, hautatu *Enviar correo* eta sakatu **Aceptar**.



**Oharra:** SMS sare-zerbitzuaren bidez mezu elektroniko bat bidaltzen duzunean, baliteke telefonoan *Mensaje enviado* testua agertzea. Horrek esan nahi du telefonoak mezu elektroniko hori dagokion zerbitzarira bidali duela. Ez du esan nahi hartzaileak mezu elektronikoa jaso duenik. Posta elektronikoaren zerbitzuei buruzko informazio xeheagoa nahi baduzu, kontsultatu zure zerbitzu-hornitzaileari.

## Testu-mezuak, irudidun mezuak edo mezu elektronikoak irakurtzea eta horiei erantzutea


Mezu bat jasotzen duzunean,  pantailan mezu berriaren adierazlea eta mezu-kopurua bistaratuko dira, horren atzetik *mensajes recibidos* testua.

Testu-mezuen memoria beteta dagoenean,  adierazlea keinuka hasiko da. Mezu berriak jaso ahal izateko, mezu zaharretakoren bat ezabatu beharko duzu. Ikus 54. orrialdea. Testu-mezuek memoria partekatua ibiltzen dute, ikus 14. orrialdea.


1. Sakatu **Mostrar** mezu berria ikusteko edo **Salir** geroago ikusteko.

**Mezua geroago irakurtzea:** Sakatu **Menú** pantaila zuri dagoela eta hautatu *Mensajes*, *Mensajes de texto* eta *Buzón de entrada*.



2. Zenbait mezu jaso badira, hautatu irakurri nahi duzun mezua, eta mugitu testuan zehar irakurtzeko. Irakurri gabeko mezuek  ikurra edukitzen dute.
3. Mezuari erantzuteko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Responder*. Hautatu
  - *Pantalla vacía*, pantaila hutsetik idatzi nahi baduzu mezua.
  - *Texto original*, jatorrizko mezua erantzunean sartu nahi baduzu.
  - Mezu berriaren oinarri gisa *Plantilla*, erantzun estandar bat (adibidez *Gracias*) edo aurrez definitutako testu bat erabili nahi baduzu. Txantiloiei buruzko informazio gehiago izateko, ikus Testu-mezuetarako eta irudidun mezuetarako karpetak, 49. orrialdean.

Mezu elektronikoko bati erantzutean, lehenik eta behin berretsi edo editatu helbide elektronikoa eta gaia eta, ondoren, idatzi erantzuna.

4. Erantzuna bidaltzeko, sakatu **Opciones**, hautatu **Enviar** eta sakatu **Aceptar**.  
EDO:  Sakatu bi aldiz.

#### **Opciones** teklarekin dauden beste aukera batzuk

Mezua irakurtzen duzun bitartean, sakatu **Opciones** aukera hauetan sartzeko. *Borrar*, *Usar detalle*, *Reenviar*, *Editar* (testu-mezuetarako) / *Editar texto* (irudidun mezuetarako), *Mover*, *Renombrar*, *Copiar a la agenda*, *Guardar gráfico* (irudidun mezuetarako), *Detalles mensaje*.



Hautatu

- *Usar detalle*, mezutik telefono-zenbaki bat, mezu elektronikoko bat edo Interneteko helbide bat ateratzeko.

- *Copiar a la agenda*, mezuaren testua memorandum gisa telefonoko agendara pasatzeko.
- *Guardar gráfico*, mezuko irudia *Plantillas* karpetan gordetzeko.

### Testu-mezuetarako eta irudidun mezuetarako karpetak

Karpeta bat irekitzeko, sakatu *Menú* pantaila zuri dagoela eta hautatu *Mensajes*, *Mensajes de texto* y, después, *Buzón de entrada*, *Elemen. enviados*, *Archivo*, *Plantillas* edo *Carpets propias*.

- *Plantillas* karpetan, mezu berriak idazteko oinarri gisa erabili nahi dituzun testu-mezuak gorde ahal izango dituzu. Txantiloiek  marka izaten dute eta irudi-txantiloiek, berriz, .

Txantiloia bat editatzeko edo ezabatzeko, hautatu nahi duzun txantiloia eta sakatu *Opciones* eta hautatu zuk nahi duzun funtzioa.

- *Carpets propias* aukerarekin, mezuak gordetzeko karpeta berriak sor ditzakezu.

Karpeta bat gehitzeko, sakatu *Añadir* (karpeten zerrenda hutsik badago) edo sakatu *Opciones* eta hautatu *Añadir carpeta*. Karpeta baten izena ezabatzeko edo aldatzeko, sakatu *Opciones* eta hautatu nahi duzun funtzioa.

### Multimedia mezuak (MMS):

Multimedia-mezuek testua, irudia edo soinu-klipa eduki ditzake. Telefonoak gehienez 100 kilobyteko multimedia-mezuak bidal ditzake.



**Oharra:** Funtzio hau zure sare-operadoreak edo zerbitzu-hornitzaileak eskaintzen badu bakarrik erabil daiteke. Multimedia-mezu bateragarrien funtzioak eskaintzen dituzten telefonoek bakarrik jaso eta bistara ditzakete multimedia-mezuak.

*Permitir recepción de multimedia aukera Si* edo *En red propia* gisa definituta badago, baliteke operadoreak edo zerbitzu-hornitzaileak jasotako mezu bakoitzeko kobratzea.

Kontuan izan ez duzula multimedia-mezurik jasotzerik izango hitz egiten, jolasean edo Java aplikazioren bat erabiltzen ari zarela, ez eta GSM datu-garraiatzailea erabiltzen duen nabigazio-saioa aktibo dagoenean ere (ikus *Zerbitzu-doikuntzak eskuz sartzea*, 101. orrialdean).

Multimedia mezuak entregatzeak hainbat arrazoiengatik huts egin dezakeenez, ez fidatu horretaz bakarrik funtsezko komunikazioetarako.

Bidalitako eta jasotako multimedia-mezuek memoria partekatua erabiltzen dute. Ikus 14. orrialdea.

### **Multimedia mezuak idaztea eta bidaltzea**

Multimedia-zerbitzua erabili aurretik, behar diren doikuntzak definitu behar dituzu. Ikus 57. orrialdea. Doikuntzei edo zerbitzu honen eskuragarritasunari buruzko informazioa lortu nahi baduzu edo haren harpide izan nahi baduzu, jarri harremanetan zure sare-operadorearekin edo zerbitzu-hornitzailearekin.

Multimedia-mezu bat bidali aurretik, irakurri 53. orrialdeko oharra.

1. Sakatu *Menú* pantaila zuri dagoela eta hautatu *Mensajes*, *Mensajes multim.* eta *Crear mensaje*.
2. Idatzi mezu bat. Ikus *Testua idaztea*, 31. orrialdean.

- Irudi bat edo soinu-klipa sartzeko, sakatu **Opciones** eta hautatu *Insertar* eta nahi duzun aukera.

*Galería* menuan eskura dituzun karpeten zerrenda bistaratzen da. Ireki karpeta bat, joan nahi duzun irudiraino edo soinuraino, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Insertar*. Copyright-en babesak direla eta, agian, irudi eta dei-seinale batzuk eta beste eduki batzuk ezingo dituzu kopiatu, aldatu, transferitu edo berriro bidali.

- Telefonoan onartzen du hainbat orrialdeko multimedia-mezuak bidaltzea eta jasotzea ("diapositibak"). Mezuan diapositiba bat sartzeko, sakatu **Opciones**, hautatu *Insertar* eta *Diapositiva*. Diapositibek testua, irudia edo soinu-klipa eduki ditzake.

Mezuak hainbat diapositiba baditu, nahi duzun diapositiba ireki dezakezu **Opciones** sakatu eta *Diapo. anterior*, *Diapo. siguiente* edo *Lista diapositivas* hautatuta.


Diapositiben arteko tarte definitzeko, sakatu **Opciones** eta hautatu *Temporiz. diapos.*

Testuaren zati bat mezuaren goiko edo beheko aldera mugitzeko, sakatu **Opciones** eta hautatu *Texto superior* edo *Texto inferior*.


- Aurkibideko izen bat sartzeko, sakatu **Opciones**, hautatu *Más opciones*, *Insertar contacto* eta nahi duzun izena. Aurkibidean zenbaki bat sartzeko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Más opciones* eta *Insertar número*.
- Mezutik irudi, diapositiba edo soinu-fitxategi bat ezabatzeko, sakatu **Opciones** eta hautatu *Borrar* eta nahi duzun funtzioa.

- Mezua *Elem. guardados* karpetan gordetzeko, sakatu **Opciones** eta hautatu *Guardar mensaje*.
  - Mezuari gaia gehitzeko, sakatu **Opciones**, hautatu *Más opciones* eta *Editar asunto*.
  - Adibidez, mezuaren tamaina edo hartzailea ikusteko, sakatu **Opciones** eta hautatu *Más opciones* eta *Detalles mensaje*.
  - Mezua edo diapositiba bidali aurretik ikusteko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Vista previa*.
3. Mezua bidaltzeko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Enviar a número* (edo *Enviar a correo* edo *Enviar a varios*).




**Iradokizuna:** Telefono-zenbaki batera ere bidal dezakezu mezua,  sakatuta.

4. Sartu hartzailearen telefono-zenbakia edo helbide elektronikoa edo bilatu aurkibidean. Sakatu **Aceptar** mezua bidaltzeko.

3. pausoan *Enviar a varios* hautatu bazenuen, sakatu **Opciones**, hautatu *Buscar número* edo *Buscar correo* eta, ondoren, hautatu, banan-banan, hartzaileak aurkibidean. Mezua bidaltzeko, sakatu , edo sakatu **Hecho** eta **Opciones** eta ondoren *Enviar*.



Bidalitako mezua *Buzón de salida* karpetan egongo da bidali arte. Bidalitako mezuak *Elemen. enviados* karpetan sartzen dira, *Guardar mensajes enviados* aukera *Sí* gisa definituta badago. Ikus **Multimedia**-mezuen doikuntzak 57. orrialdean.


## Multimedia-mezuak bidaltzeko oharrak

- Baliteke denbora gehiago behar izatea multimedia-mezu bat bidaltzeko mezu arrunt bat bidaltzeko baino. Mezua bidaltzen den bitartean,  ikonoa keinuka ikusiko da, eta telefonoaren beste funtzio batzuk erabiltzeko aukera izango duzu.


Bidalketa eten egiten bada, telefonoa behin eta berriro saiatuko da mezua bidaltzen. Bidalketa gauzatu ezin bada, mezua *Buzón de salida* karpetan agertuko da, geroago bidaltzen saiatzeko.

## Multimedia-mezuak irakurtzea eta horiei erantzutea

Telefonoak multimedia mezu bat jasotzen duenean,  adierazlea keinuka agertzen da. Mezua jaso denean,  adierazlea eta *Mensaje multimedia recibido* testua bistaratzen dira.

Multimedia-mezuen memoria beteta dagoenean,  adierazlea keinuka hasiko da. Mezu berriak jaso ahal izateko, mezu zaharretakoren bat ezabatu beharko duzu. Ikus 54. orrialdea.

1. Sakatu **Mostrar** une horretan jasotako mezu berria ikusteko edo **Salir** geroago ikusteko.

**Mezua geroago irakurtzea:** Sakatu **Menú** pantaila zuri dagoela eta hautatu *Mensajes*, *Mensajes multimed.* eta *Buzón de entrada*. Hautatu zerrendan nahi duzun mezua. Irakurri gabeko mezuek  ikurra edukitzen dute.

2. Mugitu mezuan. Mezuak diapositibaren bat badu, aurkezpena automatikoki exekutatu da.

Sakatu **Opciones**, adibidez, funtzio hauetan sartzeko: *Borrar mensaje*, *Responder / Respond. a todos*, *Reenviar a nº / Reenviar a correo / Reenviar a varios*, *Detalles mensaje*, *Repr. presentac.*, *Continuar present.*, *Ver texto*, *Abrir imagen*, *Abrir clip de sonido*. Hautatu

- *Ver texto*, mezuaren testua soilik ikusteko.
- *Abrir imagen*, mezuarekin bidalitako irudia ikusteko. Sakatu **Opciones** irudia handitzeko; gorde Galería menuan, doitu irudiaren kontrastea edo ikusi xehetasunak.
- *Abrir clip de sonido* eta sakatu **Opciones**, soinu-klipa erreproduzitzeko; gorde *Galería* menuan edo ikusi xehetasunak.

Copyright-en babesak direla eta, agian, irudi eta dei-seinale batzuk eta beste eduki batzuk ezingo dituzu kopiatu, aldatu, transferitu edo berriro bidali.

## Mezuak ezabatzea

Irakurtzen ari zaren testu-mezua edo multimedia-mezua ezabatzeko, sakatu **Opciones** eta hautatu funtzio egokia.

Mezuak karpetetatik banan-banan edo guztiak batera ezabatzeko:

1. Sakatu **Menú** pantaila zuri dagoela eta hautatu *Mensajes*, *Mensajes de texto* edo *Mensajes multim.* eta *Borrar mensaje*.
2. Karpeta bateko mezu guztiak ezabatzeko, hautatu karpeta hori eta sakatu **Aceptar**.


Karpeta guztietako testu-mezu guztiak ezabatzeko, hautatu *Todos mensajes* eta sakatu **Aceptar**.

## Ahots-mezuak

Ahots-postontzia sare-zerbitzu bat da eta baliteke aldez aurretik harpidetu behar izatea.

Sakatu Menú pantaila zuri dagoela eta hautatu *Mensajes* eta *Mensajes de voz*. Hautatu *Número del buzón de voz* telefono-zenbakia ahots-postontzian gordetzeko edo *Escuchar los mensajes de voz* ahots-postontzira deitzeko.



**Iradokizuna:** Ahots-postontzira bizkor deitzeko, luze sakatu  tekla.

## Informazio-mezuak

Sare-zerbitzu honen bidez, zenbait gairi buruzko mezuak bidaltzen dizkizu zerbitzu-hornitzaileak.

Sakatu Menú pantaila zuri dagoela eta hautatu *Mensajes* eta *Mensajes de info*. Erabilgarri dauden gaiei eta gairik garrantzitsuenen zenbakiei buruzko informazioa lortzeko, jar zaitez harremanetan zure hornitzailearekin.

## Mezuen doikuntzak

Testu-mezuen eta mezu elektronikoen doikuntzak

Sakatu Menú pantaila zuri dagoela eta hautatu *Mensajes*, *Ajustes mensajes*, *Mensajes de texto* eta *Modo de envío*. Hautatu aldatu nahi dituzun doikuntzen multzoa ("bidaltzeko modua"). Ondoren, aukeratu



- *Número del centro de mensajes*, testu-mezuak eta irudidun mezuak bidaltzeko behar duzun telefono-zenbakia gordetzeko. Zenbaki hori zure zerbitzu-hornitzaileak emango dizu.
- *Mensajes enviados como*, mezu-mota aukeratzeko: *Texto*, *Correo*, *Buscapersonas* edo *Fax* (sare-zerbitzua)
- *Validez de los mensajes*, sareak zenbat denboran saiatu behar duen mezua hartzaileari bidaltzen zehazteko (sare-zerbitzua).
- *Nº de destinatario predeterminado*, bidalketa-mota hau erabiltzen denean mezuak bidaltzeko aurrez zehaztutako telefono-zenbakia gordetzeko. Doikuntza hau bistaratzen da *Mensajes enviados como* doikuntza *Texto* gisa definituta dagoenean.

*Mensajes enviados como* doikuntza *Correo* gisa definituta dagoenean, doikuntza hori *Servidor de correo* izango da, eta posta-zerbitzariaren telefono-zenbakia gordetzeko aukera ematen du.

- *Informes de entrega*, mezuak entregatu izanaren txostenak bidaltzeko eskatzeko sareari (sare-zerbitzua).
- *Usar GPRS* eta *Sí*, ahal denean, telefonoak (E)GPRS konexioaren bidez bidal ditzan mezuak. Horrez gain, definitu *Conexión GPRS Siempre en línea* gisa. Ikus GPRS 75. orrian.
- *Responder vía mismo centro*, mezuaren hartzaileak mezu-zentroaren bidez erantzuteko aukera izateko (sare-zerbitzua).
- *Renombrar modo de envío*, bidalketa-moduaren izena aldatzeko. Aurrez zehaztutako moduaren izena ezin da aldatu.

### Gainidazketaren doikuntzak

Telefonoa konfiguratu dezakezu mezu zaharren tokian automatikoki berriak gordetzeko moduan. Sakatu **Menú**, pantaila zuri dagoela, eta aukeratu *Mensajes*, *Ajustes mensajes*, *Mensajes de texto* eta *Sobreescritura en Elemen. enviados* edo *Sobreescritura en buzón de entrada*. Aukeratu *Permitida*; *Buzón de entrada* edo *Elemen. Enviados* karpetan, hurrenez hurren, mezu zaharren ordean mezu berriak sartzeko moduan telefonoa konfiguratzeko.

### Multimedia mezuen doikuntzak

Sakatu **Menú**, aukeratu *Mensajes*, *Ajustes mensajes* eta *Mensajes multim.* Hautatu

- *Guardar mensajes enviados* eta *Sí*, bidalitako multimedia-mezuak *Elemen. enviados* karpetan gordetzeko telefonoa konfiguratzeko. *No* aukeratu baduzu, bidalitako mezuak ez dira gordeko.
- *Informes de entrega*, mezuak entregatu izanaren txostenak bidaltzeko eskatzeko sareari (sare-zerbitzua).
- *Temporización de diapos. predeterm.*, aurkezpenetan, diapositiben arteko tartea definitzeko.
- *Permitir recepción de multimedia*, multimedia-mezuak hartzea onartzeko (*Si*) edo atzera botatzeko impedir (*No*), edo sare lokalean bakarrik onartzeko (*En red propia*).

- *Mensajes multimedia entrantes*, jaso berriak diren multimedia-mezuak automatikoki berreskuratzeko moduan konfiguratzeko (*Recuperar*), edo aukeratu *Rechazar* multimedia-mezurik jaso nahi ez baduzu.

Doikuntza hori ez da bistaratzen *Permitir recepción de multimedia* aukera *No* gisa definituta badago.

- *Ajustes de conexión*, jasotako multimedia-mezu berriak berreskuratzeko moduan definitzeko nabigatzaileko doikuntzak. Aktibatu doikuntzak gorde nahi dituzun konexio-multzoa, eta, ondoren, editatu. Ikus, halaber, *Zerbitzu-doikuntzak eskuz sartzea*, 101. orrialdean.

Doikuntza egokiei buruzko informazioa lortzeko, jar zaitetz harremanetan zure sare-operadorearekin edo zerbitzu-hornitzailearekin.

- *Permitir publicidad*, publizitatea onartzeko edo ez onartzeko. Doikuntza hori ez da bistaratzen *Permitir recepción de multimedia* aukera *No* gisa definituta badago edo *Mensajes multimedia entrantes* aukera *Rechazar* gisa definituta badago.

## Letra-tipoaren tamaina doitzea

Mezuak irakurtzeko eta idazteko letra-mota aukeratzeko, sakatu *Menú*, aukeratu *Mensajes*, *Ajustes mensajes*, *Otros ajustes* eta, ondoren, *Tamaño de fuente*.

## Zerbitzu-komandoak

Zure zerbitzu-hornitzaileari zerbitzu eskabideak bidal diezazkiokezu (sare-zerbitzua). Menu honetara sartzeko, sakatu *Menú*, pantaila zuri dagoela, eta hautatu *Mensajes* eta *Comandos servicio*. Idatzi nahi dituzun karaktereak eta sakatu *Enviar*.

## ■ Deien erregistroa (2. menua)



Menu honetan, telefonoak galdutako, jasotako eta bidalitako deien telefono-zenbakiak ikus ditzakezu, bai eta deien gutxi gorabeherako iraupena ere.

### Galdutako, jasotako eta bidalitako deiak

Galdutako, jasotako eta bidalitako deien telefono-zenbakiak ikusteko, sakatu **Menú** pantaila zuri dagoela eta hautatu *Reg. Llamadas*. Hautatu

- *Llamadas perdidas*, zuri deitzen saiatu diren azken hamar telefono-zenbakien zerrenda ikusteko (sare-zerbitzua).
- *Llamadas recibidas*, onartutako azken hamar deien telefono-zenbakiak ikusteko (sare-zerbitzua).
- *Llamadas enviadas*, deitu dituzun edo deitzen saiatu zaren azken 10 telefono-zenbakiak ikusteko Ikus, halaber, **Markatutako azken hamar zenbakietara deitzea, 27. orrialdean.**
- *Borrar listas de últimas Llamadas*, galdutako, jasotako eta bidalitako deien zerrenda ezabatzeke.

### Galdutako, jasotako eta bidalitako deiei buruzko oharra

- Telefonoak galdutako eta jasotako deiak erregistratzen ditu, baldin eta sareak funtzio horiek onartzen baditu, telefonoa pizturik badago eta sarearen zerbitzu-eremuaren barruan badago.

- **Opciones** sakatzen baduzu *Llamadas perdidas*, *Llamadas recibidas* edo *Llamadas enviadas* menuetan, adibidez, deia-aren data eta ordua ikusi ahal izango dituzu, erregistratutako zenbakira deitu ahal izango duzu, aurkibidean gorde ahal izango duzu edo mezu bat bidali ahal izango duzu zenbaki horretara.

## Deien kontagailuak eta tenporizadoreak



**Oharra:** Zerbitzu-hornitzailearen zerbitzuengatik eta deiengatik jasotako benetako faktura aldatu egin daiteke, sarearen ezaugarrien, fakturazio-biribiltzeen, zergen eta abarren arabera.

Sakatu **Menú** pantaila zuri dagoela eta hautatu *Reg. Llamadas*. Hautatu

- *Duración de la Llamada*, sarrerako eta irteerako deien gutxi gorabeherako iraupena ikusteko.
- *Contador de datos de GPRS*, (E)GPRS konexioetan bidalitako eta jasotako datu-kantitatea ikusteko.
- *Temporizador de conexión de GPRS*, (E)GPRS konexioen iraupena ikusteko.

## ■ Aurkibidea (3. menua)



Izenak eta telefono-zenbakiak (kontaktuak) telefonoaren memorian edo SIM txartelaren memorian gorde daitezke.


Menu horretan sartzeko: Sakatu **Menú** pantaila zuri dagoela eta hautatu *Guía*.

Gorde daitezkeen izen-kopurua haien luzeraren arabera izango da, eta telefono-zenbakien eta testu-elementuen kopuruaren eta luzeraren arabera. Telefonoak onartzen dituen SIM txarteletan 250 izen eta telefono-zenbaki jaso daitezke.

Telefonoaren memorian gordetako kontaktuek memoria partekatua erabiltzen dute. Ikus 14. orrialdea.

## Menu honetako funtzioetara sartzeko metodo alternatiboak

Pantaila zuri dagoela **Guía** sakatuta ere sar zaitezke funtzioetara (edo **Ir a** sakatuta eta **Guía** hautatuta).

Modu hauetara ere sar zaitezke funtzio batzuetara: Sakatu  pantaila zuri dagoela, joan nahi duzun izeneraino, sakatu **Detalles**, joan zenbakira edo testu-elementura, sakatu **Opciones** eta hautatu nahi duzun funtzioa.

Hitz egiten ari zarenean aurkibidean sartzeko, sakatu **Opciones** eta aukeratu **Guía**.


## Aurkibidearen doikuntzak hautatzea

Sakatu **Menú** pantaila zuri dagoela eta hautatu **Guía** eta **Ajustes**. Hautatu

- **Memoria en uso**, zein memoriatako aurkibidea erabili nahi duzun aukeratzeko. Bi memorietan izen eta zenbaki bat bilatu nahi baduzu, hautatu **Teléfono y SIM**. Kasu horretan, izenak eta zenbakiak telefonoaren memorian gordetzen dira.

- *Vista de la guía*, aurkibideko izenak, zenbakiak eta irudiak zein eratarata bistaratuko diren aukeratzeko. Adibidez, hautatu *Nombre e imagen* izenak haiei lotutako irudiekin batera ikusteko.
- *Estado de la memoria*, memoria bakoitzean zenbat memoria dagoen libre egiaztatzeko.


## Izenak eta telefono-zenbakiak gordetzea



1. Sakatu **Menú** pantaila zuri dagoela eta hautatu *Guía* eta *Añadir contacto*.
2. Sartu izena eta sakatu **Aceptar** gordetzeko.
3. Sartu telefono-zenbakia aurrezenbakiarekin, eta sakatu **Aceptar** gordetzeko.
  - Atzerrian zaudela telefono-zenbakia erabili nahi baduzu, sakatu  bitan (+ karakterea sartzeko) eta sartu herrialdearen kodea, aurrezenbakia (behar izanez gero, ez jarri ezkerrean 0) eta telefono-zenbakia.
4. Izena eta zenbakia gorde eta gero, sakatu **Hecho**.




**Iradokizuna:** Izen bat edo telefono-zenbaki bat bizkor gordetzeko, idatzi telefono-zenbakia pantaila zuri dagoela, sakatu **Opciones** eta hautatu *Guardar*.

**Izen bati lotutako zenbakiak eta testu-elementuak memorian sartzea**  
Telefonoaren memoriak izen bakoitzarekin zenbaki eta testu-elementu desberdinak gordetzeko aukera ematen du.

Izenarekin gordetako lehen telefono-zenbakia automatikoki definitzen da aurrez zehaztutako zenbaki gisa, eta zenbaki-motaren adierazlearen inguruan marko bat jarrita adierazten da, adibidez . Aurkibideko izen bat aukeratzen denean, adibidez dei bat egiteko, aurrez zehaztutako zenbakia erabiltzen da, baldin eta beste zenbaki bat aukeratzen ez bada.

1. Ziurtatu hautatutako memoria *Teléfono* edo *Teléfono y SIM* dela.
2. Sakatu  pantaila zuri dagoela.
3. Mugitu zenbaki edo testu-elementua gehitu nahi diozun izeneraino eta sakatu *Detalles*.
4. Sakatu *Opciones*, hautatu *Añadir número*, *Añadir detalle* edo *Cambiar tipo*.
  - Telefono-zenbaki bat eransteko, hautatu *Añadir número* eta zenbaki-mota. Sartu izena eta sakatu *Aceptar* gordetzeko.
  - Testu-elementu bat eransteko, hautatu *Añadir detalle* eta testu-mota bat, adibidez, *Correo*. Karaktere bezeriak sartzeko, sakatu .
  - Hautatutako zenbaki-mota aldatzeko, hautatu *Cambiar tipo* eta nahi duzun mota.
5. Sakatu *Atrás* eta, ondoren, *Salir* pantaila zurira itzultzeko.


#### **Aurrez zehaztutako zenbakia aldatzea**

Sakatu  edo pantaila zuri dagoela, joan zaitez nahi duzun izeneraino eta sakatu *Detalles*. Joan zaitez aurrez zehaztu gisa definitu nahi duzun zenbakiraino. Sakatu *Opciones* eta aukeratu *Fijar como predet*.





## Gordetako izen bati edo zenbaki bati irudi bat atxikitzea

Telefonoaren memorian gordetako izen edo zenbaki bati irudi bat gehi diezaiokezu. Telefono-zenbaki horretatik deitzen dutenean bistaratuko da irudia.

Sakatu  pantaila zuri dagoela, joan irudia erantsi nahi diozun izeneraino (eta zenbakiraino) eta sakatu **Detalles**. Sakatu **Opciones** eta aukeratu *Añadir imagen*. *Galería* menuan eskura dituzun karpeten zerrenda bistaratzen da. Joan nahi duzun irudiraino, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Guardar en la guía*.

## Aurkibidean izen bat bilatzea


1. Sakatu **Menú** pantaila zuri dagoela eta hautatu *Guía* eta *Buscar*. **EDO:** Sakatu  pantaila zuri dagoela.
2. Nahi izanez gero, sartu izenaren lehen letra edo letrak.
3. Joan zaitetz nahi duzun izeneraino eta sakatu **Detalles**. Izena SIM txartelean gordeta badago,  pantailaren goiko aldean bistaratuko da.
4. Joan telefono-zenbakiraino eta izenari atxikitako testu-elementuetaraino.

## Kontaktuak ezabatzea


Sakatu **Menú** pantaila zuri dagoela eta hautatu *Guía* eta *Borrar*. Hautatu *Uno por uno* edo *Borrar todo*.

Izen eta zenbaki bat ezabatzean, haiei lotutako zenbakiak, testu-elementuak eta irudiak ere ezabatuko dira. Aurkibidetik irudi bat ezabatzeak ez du esan nahi *Galería* menuan ere ezabatu egiten denik.

**Izen bati lotutako zenbakiak, testu-elementuak edo irudiak ezabatzea**

Sakatu  edo pantaila zuri dagoela, joan zaitez nahi duzun izeneraino (eta zenbakiraino) eta sakatu *Detalles*. Joan ezabatu nahi duzun zenbakiraino, testu-elementuraino edo irudiraino, sakatu *Opciones*, hautatu funtzio egokia eta sakatu *Aceptar*.

**Izenak, zenbakiak edo testu-elementuak editatzea**

Sakatu  edo pantaila zuri dagoela, joan zaitez nahi duzun izeneraino eta sakatu *Detalles*. Joan izen, zenbaki edo testu-elementuraino eta sakatu *Opciones*. Hautatu nahi duzun funtzioa, adibidez *Editar detalle* testu-elementua editatzeko.

**Aurkibidea kopiatzea**

Memoriaren telefonotik izenak eta telefono-zenbakiak kopia daitezke SIM txartelaren memoriara, eta alderantziz. Telefonoan gordetako testu-elementuak edo irudiak ez dira kopiatuko SIM txartelean.

Sakatu *Menú* pantaila zuri dagoela eta hautatu *Guía* eta *Copiar*. Hautatu kopiatu nahi duzun helbidea. Aukeratu *Uno por uno*, *Todas* edo *Números predet.* (telefonotik kopiak egiten direnean bakarrik bistaritzen dira). Aukeratu jatorrizko izenak eta zenbakiak gorde nahi dituzun (*Conservar original*) edo ezabatu nahi dituzun (*Mover original*).

## Aurkibidearekin lotutako beste funtzio batzuk

Funtzio hauetara sartzeko, sakatu *Menú* pantaila zuri dagoela eta hautatu *Guía*.  
Hautatu



- *Números info.*, zerbitzu-hornitzailearen informazio-zenbakietara deitzeko, SIM txartelean sartuta badaude (sare-zerbitzua).
- *Números servicio*, zerbitzu-hornitzailearen zerbitzu-zenbakietara deitzeko, SIM txartelean sartuta badaude (sare-zerbitzua).
- *Números propios*, SIM txartelari esleitutako telefono-zenbakiak ikusteko, txartelak onartzen badu.
- *Grupos llamantes*, *Guía* menuan gordetako izenak eta telefono-zenbakiak deitaldeen arabera antolatzen. Talde bakoitzarentzako dei-seinale bat eta logo bat hauta ditzakezu, talde horretako telefono-zenbaki batetik deia jasotzen duzunean pantailan bistaratzeko.

Funtzio hauek erabil ditzakezu: *Nombre de grupo*, *Señal de llamada de grupo*, *Logotipo de grupo*, *Miembros del grupo*.

*Miembros del grupo* hautatu baduzu, sakatu *Añadir* (edo sakatu *Opciones* eta hautatu *Añadir contacto*) taldeari izen bat jartzeko. Taldearen izena ezabatzen, sakatu *Opciones* eta aukeratu *Eliminar contacto*.

Ikus, halaber, *Aviso para Tonuen doikuntzak* atalean, 69. orrialdean.

## Markaketa bizkorra

 -  bitarteko zenbaki-teklak markaketa bizkorreko tekla gisa erabiltzeko defini daitezke. Dei bat markaketa bizkorraren bidez egiteko, ikus 27. orrialdea.


## Markaketa bizkorreko tekla bati telefono-zenbaki bat esleitzea

Sakatu **Menú** pantaila zuri dagoela eta hautatu *Guía* eta *Marcación rápida*. Joan nahi duzun teklaraino eta sakatu **Asignar**. Sakatu **Buscar** eta hautatu aukeratutako teklari esleitu nahi dizkiozun izena eta zenbakia.

Teklari beste telefono-zenbaki bat esleitu bazaio aurretik, esleipen hori aldatu edo ezabatu dezakezu **Opciones** sakatuta eta, ondoren, nahi duzun funtzioa sakatuta.

## Bisita-txartelak

Pertsona baten harremanetarako informazioa bidali edo jaso dezakezu, bisita-txartela balitz bezala.

Bisita-txartela telefono bateragarri batera edo vCard estandarra onartzen duen beste gailu bateragarri batera bidal daiteke. Sakatu  pantaila zuri dagoela, joan zaitez nahi duzun izeneraino eta sakatu **Detalles**. Sakatu **Opciones** eta aukeratu *Enviar tarjeta de visita*. Hautatu *Vía infrarrojos* edo *Vía mensaje texto* (sare-zerbitzua).

Bisita-txartel bat jasotakoan, sakatu **Mostrar** eta **Guardar** bisita-txartela telefonoaren memorian gordetzeko. Bisita-txartela onartu nahi ez baduzu, sakatu **Salir** eta, ondoren, **Aceptar**.

## ■ Doikuntzak (4. menua)

Menu honetan telefonoaren zenbait doikuntza alda dezakezu. Menuko doikuntzen jatorrizko balioak ere berrezar ditzakezu.



**Menu horretan sartzeko:** Sakatu **Menú** pantaila hutsik dagoela eta hautatu *Ajustes*.


## **Moduak**

Telefonoak hainbat aukera-talde ("moduak") ditu, eta telefono-tonuak talde horien arabera pertsonaliza daitezke, egoeraren eta inguruaren arabera.


**Menu horretan sartzeko:** Sakatu **Menú** pantaila zuri dagoela eta hautatu *Ajustes* eta *Modos*.

1. Hautatu aktibatu nahi duzun modua edo aldatu nahi dituzun doikuntzak.
2. Hautatu *Activar*, *Personalizar* edo *Temporizar*.
  - Nahi duzun modua aktibatzeke, aukeratu *Activar*.
  - Modu bat denbora jakin batean aktibatzeke, hautatu *Temporizar* eta definitu amaiera-ordua. Denbora-tarte hori amaitzen denean, berriro aurreko modua aktibatuko da, denbora-tarterik ezarri ez zaion modua alegia.
  - Moduen doikuntzak aldatzeke, hautatu *Personalizar*. Hautatu aldatu nahi duzun doikuntza eta egin aldaketak.

Doikuntzei buruzko informazio gehiago izateko, ikus **Tonuen doikuntzak 69.** orrialdean. *Nombre de modo* aukerarekin, hautatutako moduaren izena alda dezakezu. *Normal* moduari ezin zaio izena aldatu.

Une bakoitzean aktibo dagoen moduaren izena pantaila zuri dagoela bistaratzen da, aktibatuta dagoena *Normal* denean izan ezik. Moduan denbora-tartea ezarrita badago,  bistaratuko da izenaren aurretik.



**Iradokizuna:** Pantaila zuri dagoela modua bizkor aldatzeko, labur sakatu pizteko tekla () eta hautatu aktibatu nahi duzun modua.

## Tonuen doikuntzak

Hautatutako moduko tonuen doikuntza eta bibrazio-doikuntzak alda ditzakezu. Doikuntza horietan daude *Modos* menuan; ikus 68. orrialdea.


**Menu horretan sartzeko:** Sakatu *Menú* pantaila zuri dagoela, hautatu *Ajustes* eta *Ajustes de tonos*. Hautatu

- *Aviso de llamada entrante*, ahots-deiren bat sartzen ari dela ohartarazteko modua definitzeko. Aukera hauek daude: *Normal*, *Ascendente*, *Una sola vez*, *Sólo un "bip"* eta *Desactivado*.
- *Señal de llamada*, dei bat jasotzean zein soinu entzungo den hautatzeko. *Galería* menuko dei-seinalea hautatzeko, sakatu *Abrir Galería*.

*Grabadora* funtzioarekin grabatutako soinu-klip bat ere erabil dezakezu dei-seinale gisa (ikus 90. orrialdea).

- *Volumen de señal de llamada*, dei-seinaleen eta menuen ohar-tonuen bolumena hautatzeko.

- *Aviso por vibración*, dei bat edo mezu bat jasotzen duzunean telefonoak bibratu dezan. Telefonoa kargagailu batera, mahai gaineko euskarri batera edo autoko kit batera konektatuta badago, bibrazio bidezko abisuak ez du funtzionatzen.
- *Tono de aviso para mensajes*, mezu bat jasotzen duzunean zein tonu entzungo den hautatzeko. Dei-seinaleen zerrendan tonua hautatzeko, hautatu *Señal de llamada* eta, ondoren, nahi duzun tonua.
- *Sonido del teclado*, teklatuaren ozentasunaren bolumena hautatzeko.
- *Tonos de aviso*, telefonoa zenbait soinu emititzeko moduan konfiguratzeko, adibidez, bateriarik gabe geratzen ari bada.
- *Aviso para*, zehaztutako dei-egileen multzo bateko telefono-zenbakietatik deiak jasotzen direnean bakarrik jo dezan telefonoak. Joan zaitetz nahi duzun dei-egileen multzoraino edo *Todas llamadas* aukeraraino eta sakatu *Selecc.* Ikus, halaber, *Guía* menuko *Grupos llamantes* doikuntza.

*Aviso de llamada entrante* doikuntza *Desactivado* gisa definituta dagoenean, eta *Tono de aviso para mensajes* aukera *Desactivado* gisa definituta,  ikonoa bistaratzen da pantaila zuri dagoela.

## Telefonoan tonu gehiago sartzea

Tonuen erabilgarritasunari buruzko informazioa testu-mezu bidez (SMS), multimedia-mezu bidez (MMS) edo nabigazio-zerbitzuen bidez eskuratzeko, jarri harremanetan sare-operadorearekin edo zerbitzu-hornitzailearekin. Tonuak *Galería* menuan gordetzen dira.

## Pantailaren doikuntzak

**Menu horretan sartzeko:** Sakatu Menú pantaila zuri dagoela, hautatu *Ajustes* eta *Ajustes de la pantalla*. Hautatu

- *Papel tapiz*, pantaila zuri dagoenean, hondoan irudi bat, horma-papera izenekoak, bistartzeko defini dadin telefonoa.

Horma-papereko irudiak *Galería* menuan daude. Irudi berriak gorde ditzakezu, adibidez, multimedia-mezuen bidez jasotakoak. Halaber, telefonoko kamerarako egindako argazkiak horma-irudi gisa erabil daitezke.

Irudi bat horma-paper gisa konfiguratzeko

- Irudi bat lehen aldiz horma-irudi gisa hautatzeko edo aldatzeko, hautatu *Selecc. papel tapiz*. Joan nahi duzun karpetaraino, sakatu *Abrir* eta joan aukeratu nahi duzun irudira. Sakatu *Opciones* eta aukeratu *Fijar como p. tapiz*.
- Lehenengo horma-irudia hautatu baduzu, baina, ondoren, *Desactivar* hautatu baduzu, aukeratu *Activar*.
- *Esquemas de color*, telefono-pantailaren alde batzuetako koloreak hautatzeko, adibidez, seinalearen intentsitatearen adierazlearen kolorea.
- *Logotipo del operador*, operadorearen logotipoa erakutsi edo ezkuta dezan definitzeko. Telefonoan operadorearen logotiporik ez badago, funtzio hori motelduta bistaratuko da.

Operadorearen logotipoen erabilgarritasunari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan zure sare-operadorearekin edo zure zerbitzu-hornitzailearekin.



- *Tiempo de espera de salvapantallas*, pantaila-babesa funtzioa zenbat denborara aktibatuko den konfiguratzeko. Pantaila-babesa energia aurrezteko funtzio bat da, eta telefonoan pantaila zuri dagoenean eta denbora jakin batean erabiliko ez denean aktibatzen da.

Edozein tekla sakatuta desaktiba dezakezu pantaila-babesa.

- *Brillo de la pantalla*, distira-maila aldatzeko. Sakatu (  edo  ) maila igotzeko edo jaisteko, sakatu  **Aceptar**  hautatutako maila onartzeko.
- *Vista de los menús*, telefonoak menu nagusia nola bistaratu behar duen finkatzeko. *Lista* hautatzen baduzu, menuak zerrenda gisa bistaratzen dira. *Cuadrícula* hautatzen baduzu, menuak lauki-sarean bistaratzen dira. Lauki-sarearen ikuspegian, menuaren izena pantailaren goiko aldean bistaratzen da.

## Dataren eta orduaren doikuntzak

**Menu horretan sartzeko:** Sakatu **Menú** pantaila zuri dagoela, hautatu *Ajustes* eta *Ajustes de hora y fecha*. Hautatu

- *Reloj* ordua doitzeko, pantaila zuri dagoela ordua bistaratzen da (edo ezkutatu); bai eta 12 edo 24 orduko formatua hautatzeko ere. Telefonetik bateria denbora luzez ateratzen bada, baliteke ordua berriz ere doitu behar izatea.

Erlojuaren doikuntzak hainbat funtziotan aplikatzen dira, esate baterako, *Mensajes*, *Reg. llamadas*, *Alarma* eta *Agenda*.

- *Fecha*, pantaila zuri dagoela data bistaratzeko (edo ezkutatzeko), bai eta dataren formatua edo datako zenbakiak bereizteko zeinua hautatzeko ere. Telefonotik batera denbora luzez ateratzen bada, baliteke data berriro ere definitu behar izatea.
- *Actualización auto de fecha y hora*, telefonoko data eta ordua automatikoki egoki daitezen une horretako ordu-eremura (sare-zerbitzua).

Data eta ordua automatikoki eguneratuta ere, ez dira aldatzen alarmarako, agendarako edo alarma-oharretarako definitutako orduak.

## Zuzeneko sarbide pertsonalak

Pantaila zuri dagoela bistaratzen den eskuineko hautaketa-teklaren funtzioa hauta dezakezu, baita pantaila zuri dagoela *Ir a* sakatuta edo *Ir a* menuaren bidez sar zaitezkeen funtzioak ere ("zuzeneko sarbide pertsonalak").

Ikus, halaber Pantaila zuria eta pantailako adierazleak 18. orrialdean eta Joan hona (10. menua) 109. orrialdean.

**Menu horretan sartzeko:** Sakatu Menú pantaila zuri dagoela, hautatu *Ajustes* eta *Accesos directos personales*. Hautatu

- *Tecla de selección derecha* eskuineko hautaketa-teklarako funtzioa hautatzeko.
- *Seleccionar opciones de Ir a*, zuzeneko sarbideen zerrendan erantsi nahi dituzun funtzioak hautatzeko. Joan funtzio batera eta sakatu *Selecc.* zerrendan sartzeko.

Zerrendako funtzio bat ezabatzeko, sakatu **Deselecc.** Aldaketak gordetzeko, sakatu **Hecho** eta hautatu **Sí**.

- *Organizar funciones de Ir a*, zerrendan funtzioen ordena aldatzeko. Joan nahi duzun funtzioraino, sakatu **Mover** eta hautatu funtzioa zein posiziotara desplazatu nahi duzun.

## **Konektagarritasuna**

Menu honen bidez, telefonoa gailu bateragarri batera konektatu ahal izango duzu, infragorritzko konexio baten bidez, eta telefonoa (E)GPRS sarera noiz konektatu beharko den defini dezakezu.

### **Infragorriak**

Telefonoak infragorrien ataka du, IrDarekin bateragarria den beste gailu batera konektatzeko, adibidez, bisita-txartelak edo agendako oharrak bidaltzeko.

**Infragorrien ataka aktibatzeko:** Sakatu **Menú** pantaila hutsik dagoela, eta hautatu *Ajustes, Conectividad e Infrarrojos*.

Ez zuzendu izpi infragorriak pertsona baten begietara zuzenean, eta ez utzi infragorriak erabiltzen dituen beste gailu batzuekin interferentziarik sortzen. Gailu hau 1 klaseko laser produktua da.

### **Datuak infragorrien bidez bidaltzea eta jasotzea**

- Ziurtatu telefonoaren eta beste gailuen infragorrien atakak bata bestearen parean daudela, eta ez dagoela horien arteko oztopo fisikorik. Infragorrien bitartez egiten den konexio bateko bi gailuen arteko gehienezko distantzia metro batekoa izatea gomendatzen da.

- Datuak jasotzeko, sartu menu honetan infragorrien ataka aktibatzeko. Bi minutu igarotakoan datuen transferentzia ez bada abiarazi, konexioa bertan behera geratzen da eta berriro hasi behar da.
- Telefonotik datuak bidaltzeko, hautatu konexioaren bidez datuak bidaltzeko erabili nahi den funtzioa.

### Infragorrien konexioaren egoera egiaztatzea

- Pantailan **✖** etengabe agertzen denean, infragorrien bidezko konexioa aktibaturik dagoela esan nahi du eta zure telefonoa prest dagoela infragorrien atakaren bidez datuak bidali edo jasotzeko.
- **✖** adierazlea keinuka hasteak esan nahi du telefonoa beste gailuarekin konektatu nahian ari dela, edo konexioa galdu egin dela.

### GPRSa

Menu honen bidez, telefonoa (E)GPRS sarera noiz konektatu defini dezakezu (sare-zerbitzua). (E)GPRS zerbitzuari buruzko informazio orokorra eskuratzeko, ikus 15. orrialdea.

**Menu horretan sartzeko:** Sakatu Menú pantaila hutsik dagoela, eta hautatu *Ajustes, Conectividad* eta *GPRS*.


Hautatu *Conexión GPRS* eta *Siempre en línea* edo *Cuando necesario*.


- *Siempre en línea* hautatzen baduzu, telefonoa, piztean, automatikoki erregistratuko da beti (E)GPRS sare batean, baldin eta kokapen horretan (E)GPRS sarea erabilgarri badago jakina.

*Cuando necesario* hautatzen baduzu, (E)GPRS zerbitzua behar duen funtzioa erabiltzen denean bakarrik erregistratzen eta konektatzen da telefonoa (E)GPRS sarera, . Kasu horretan, konexioa ezartzeko denbora gehiago behar dezake *Siempre en línea* hautatuta baino.

### GPRSaren adierazleak

(E)GPRSaren *Siempre en línea* konexio-modua hautatzen denean, (E)GPRS zerbitzua erabilgarri badago,  adierazlea pantailan bistaratuko da.

(E)GPRS zerbitzua erabiltzen duen funtzio bat abiarazten denean, telefonoa (E)GPRS sarera konektatzen da,  bistaratzen da eta datuak transferi daitezke.

(E)GPRS konexio batean dei bat edo testu-mezu bat jasotzen edo dei bat egiten baduzu, pantailan  adierazlea bistaratuko da, (E)GPRS konexioa eten egin dela adierazteko (zain dago). Telefonoa konexioa berrezartzen saiatuko da deia amaitu ondoren.

### Dei-doikuntzak


**Menu horretan sartzeko:** Sakatu Menú pantaila zuri dagoela, hautatu *Ajustes* eta *Ajustes de llamada*. Hautatu





- *Desvío de llamadas*, sarrerako deiak ahots-postontzira edo beste telefono-zenbaki batera pasatzeko (sare-zerbitzua). SIM txartelak edo sare-operadoreak onartzen ez dituen deiak desbideratzeko aukerak ez dira bistaratuko.

Hautatu nahi duzun desbideratzea; adibidez, aukeratu *Desvío si ocupado* zure zenbakia okupatuta dagoenean edo sarrerako dei bat onartzen ez denean ahots-deiak desbideratzeko.

Aktibatu (*Activar*) edo desaktibatu (*Cancelar*) desbideratzeko aukera, edo begiratu aukera aktibatuta dagoen (*Verificar estado*).

- *Activar* hautatu baduzu, adierazi nora desbideratu nahi dituzun deiak. Desbideratzeko aukera batzuetan, deia desbideratu aurretik zenbat denbora pasatu behar duen ere aukera dezakezu.

Desbideratzeko aukera bat baino gehiago egon daitezke aktibatuta aldi berean. Dei guztiak desbideratzen badira,  ikurra bistaratzen da pantaila zuri dagoela.

- *Control auto de volumen* eta *Activar* hizketan ari zarela (edo ) bidez hautatutako bolumenean egon dadin entzungailua. Adibidez, leku zaratatsu batean egonez gero, telefonoaren bolumena igo egiten da.
- *Cualquier tecla responde* eta *Activar*, sarrerako dei bati erantzun nahi badiozu edozein tekla labur sakatuta (  pizteko tekla, hautaketa-teklak eta  tekla izan ezik).
- *Reclamada automática*, dei batek huts egiten duenean, beste hamar saiora arteko egiteko moduan telefonoa konfiguratzeko.
- *Marcación rápida* y *Activar*,  tik  rako markaketa bizkorreko teklak dituzten telefono-zenbakietara eta izenetara deitu nahi baduzu, bakoitzari dagokion tekla luze sakatuta.
- *Llamada en espera* eta *Activar*, dei bati erantzuten ari zarela, sarrerako beste dei bat dagoela jakinaraz diezazun sareak (sare-zerbitzua).
- *Resumen tras la llamada* eta *Activar*, telefonoak azken deiaren iraupena une labur batean bistara dezan.

- *Envío de identidad del llamante*, deitzen ari zaren pertsonaren pantailan zure telefono-zenbakia ager dadin (*Si*) edo ager ez dadin (*No*). *Fijado por la red* aukeratzen baduzu, zerbitzu-hornitzailearekin hitzartutako aukera erabiliko da. Hau sare-zerbitzu bat da.
- *Línea para llamadas salientes*, deiak egiteko 1. edo 2. linea aukeratzeko (sare-zerbitzua). Edozein linea hautatuta ere, bi lineetako deiei erantzun diezaikezu.

*Línea 2* aukeratzen baduzu, eta sare-zerbitzu horretara abonatuta ez bazaude, ezingo duzu deirik egin. 2. linea hautatu baduzu, pantaila zuri dagoela 2 zenbakia bistaratuko da.

*Bloquear* aukeraren bidez, linea hautatzeko aukera galaraz dezakezu, zure SIM txartelak horretarako aukera ematen badizu.

## Telefonoaren doikuntzak

**Menu horretan sartzeko:** Sakatu *Menú* pantaila zuri dagoela, hautatu *Ajustes* eta *Ajustes del teléfono*. Hautatu

- *Idioma del teléfono* pantailako testuak zein hizkuntzatan ateratzea nahi diren aukeratzeko. *Automático* aukeratzen baduzu, telefonoak SIM txartelean dagoen informazioaren arabera aukeratuko du hizkuntza.
- *Estado de la memoria*, memoria partekatuaren funtzioek erabilitako espazioa eta libre dagoena zenbatekoa den jakiteko.

- *Bloqueo auto del teclado*, pantaila zuri dagoela denbora-tarte jakin bat pasatu ondoren, teklatura automatikoki blokea dadin. Ikus, halaber, Teklatura blokeatzea, 29. orrialdean.

Teklatura automatikoki blokea dadin, hautatu *Activar* eta definitu zenbat denbora pasatu ondoren blokeatuko den teklatura. Blokeo automatikoa desaktibatzeneko, aukeratu *Desactivar*.



**Oharra:** Teklatura babesteko aukera aktibatuta dagoenean, telefonoan programatutako larrialdi-zenbakietara dei daitezke (adibidez, 112 zenbakira edo beste larrialdi-zenbaki ofizial batera). Markatu larrialdi-zenbakia eta sakatu. Azken digitua sakatu arte ez da zenbakirik bistaratuko.

- *Presentación de info de célula* Micro Cellular Network teknologian (MCN) oinarritutako sare zelularrean noiz erabiliko den adierazteko moduan telefonoa konfiguratzeko (sare-zerbitzua).
- *Saludo inicial*, telefonoa pizten denean labor bistaritzen den oharra definitzeko. Oharra gordetzeko, sakatu Opciones eta aukeratu *Guardar*.
- *Selección de red*, zure eremuan erabilgarri dagoen sare zelularra automatikoki aukeratzeko moduan (*Automática*) edo sarea zerrenda batetik eskuz aukeratzeko moduan telefonoa konfiguratzeko funtzioa da (*Manual*).

Aukeratutako sareak desplazamendu-akordioa izan behar du zure operadore lokalaren sarearekin. *No hay acceso* agertzen bada, aukeratu beste sare bat.

Telefonoa eskuzko moduan egongo da modu automatikoa aukeratu arte edo beste SIM txartel bat sartu arte.



- *Confirmar acciones de servicio de SIM* eta *Sí*, SIM txartelego zerbitzuak erabiltzen dituzunean, berrespen-mezuak bistartzeko moduan konfiguratzeko telefonoa.
- *Activación de texto de ayuda*, menuetako funtzioak erabiltzeko laguntza-testuak bistara ditzan telefonoak.
- *Tono inicial*, telefonoa piztean hasierako tonua emititzeko moduan konfiguratzeko telefonoa.

## Osagarrien doikuntzak

Telefonoak osagarri bateragarri batera konektaturik dagoenean erabiltzen dituen doikuntzak defini ditzakezu.

**Menu horretan sartzeko:** Sakatu *Menú* pantaila zuri dagoela, hautatu *Ajustes* eta *Ajustes de accesorios*.

Hautatu nahi duzun osagarria, adibidez, *ML portátil* edo *Manos libres*. Osagarriaren arabera, funtzio hauekiko bat hauta dezakezu:

- *Modo predeterminado*, hautatutako osagarria telefonora konektatzen duzunean automatikoki aktibatuko den modua hautatzeko.
- *Respuesta automática*, sartzen diren deiei bost segundoan automatikoki erantzuteko moduan konfiguratzeko telefonoa. *Aviso de llamada entrante* aukera *Sólo un "bip"* edo *Desactivado* gisa definitu bada, automatikoki erantzuteko aukera ezingo da erabili.

- *Iluminación*, argia piztuta egon dadin (Activar), edo 15 segundo piztuta egon dadin, edozein tekla sakatu ondoren (*Automática*).
- *Detector de encendido* eta *Activar*, autoari kontaktua kendu eta 20 segundo pasatutakoa itzal dadin. Funtzio hau erabilgarri dago telefonoa autorako kit profesional batera konektatuta egon bada edo konektatuta badago.
- *Utilizar DTS* eta *Sí*, testu-telefono batekin telefonoko testu-doikuntzak erabiltzeko, ML eramangarriaren edo audiofono-egokigailuaren doikuntzak erabili beharrean.

## Osagarrien adierazleak, pantaila zuri dagoela

Telefonora osagarri bateragarri bat konektatzen denean, dagokion adierazlea (adibidez, 📶 edo 📶), pantailan bistaratzen da, pantaila zuri dagoenean.

## Segurtasun-doikuntzak

Menu horretan sartzeko: Sakatu **Menú** pantaila zuri dagoela, hautatu *Ajustes* eta *Ajustes de seguridad*.




**Oharra:** Deiak mugatzen dituzten segurtasun-ezaugarriak aktibatuta daudenean (deiak blokeatzea, erabiltzaile-talde itxia eta markaketa finkoa), sare batzuetan larrialdi-zenbaki jakin batzuetarako deiak egin daitezke (adibidez, 112 edo beste larrialdi-zenbaki ofizial batzuetara).

## Hautatu

- *Petición del código PIN*, telefonoak, piztean, PIN kodea eska dezan. SIM txartel batzuetan, ezin da doikuntza hau desaktibatu.
- *Servicio de restricción de llamadas*, telefonoan egin edo jaso daitezkeen deiak murrizteko (sare-zerbitzua).
- *Marcación fija*, telefonotik hautatutako zenbakietara egindako deiak eta testu-mezuak murrizteko, SIM txartelak onartzen badu (sare-zerbitzua).

Markaketa finkoa aktibatuta dagoenean, (E)GPRS konexioak testu-mezuak bidaltzeko bakarrik erabil daitezke. Dei-hartzailearen telefono-zenbakia eta mezu-zentroaren zenbakia markatze finkoko zerrendan sartuta egon behar dute.

- *Grupo cerrado de usuarios*, zuri deitzeko edo zuk deiak egiteko aukera duten pertsona-taldea zehazteko da (sare-zerbitzua). Erabiltzaile-talde itxia erabiltzen duzunean, taldearen zenbakia eta  ikonoa bistaritzen dira pantaila zuri dagoela.
- *Nivel de seguridad*, telefonoak segurtasun-kodea noiz eskatu behar duen definitzeko.

*Teléfono* aukeratzen baduzu, telefonoak segurtasun-kodea eskatuko du SIM txartel berri bat sartzen duzun bakoitzean.

*Memoria* hautatzen baduzu, telefonoak segurtasun-kodea eskatuko du erabiltzen ari den memoria *Tarjeta SIM* denean eta *Teléfono* edo *Teléfono y SIM* memoriara aldatu nahi duzunean edo aurkibide batetik bestera izenak eta zenbakiak kopia nahi dituzunean.

Doikuntza hau aldatzen baduzu, *Llamadas perdidas*, *Llamadas recibidas* eta *Llamadas enviadas* menuetako zenbakiak ezabatu egiten dira.

- *Códigos de acceso*, segurtasun-kodea, PINa edo PIN2a aldatzeko edo pasahitza murrizteko. Kodeak Otik 9rako karakterekin bakarrik osa daitezke.

## Hasierako balioak berriz ezartzea

Menuko zenbait aukeraren hasierako balioak berrezarri ditzakezu.

Sakatu *Menú* pantaila zuri dagoela eta hautatu *Ajustes* eta *Restablecer los valores iniciales*. Sartu segurtasun-kodea eta sakatu *Aceptar*. Kontuan izan funtzio honek ez duela ezabatzen telefonoan gordetako edo deskargatutako informazioa.

## ■ Galeria (5. menua)



Menu honetan, esaterako, multimedia mezueta gordetako grafikoa, irudiak, grabazioak eta tonuak kudea ditzakezu. Fitxategi horiek karpeta daude.



**Oharra:** Funtzio hau erabiltzeko, telefonoak piztuta egon behar du. Ez piztu telefonoa mugikorrek erabiltzea debekatuta dagoen lekuetan edo interferentziak sor ditzakeen edo arriskuren bat ekar dezakeen lekuetan.

Telefonoak erabilera-eskubideak onartzen ditu, telefonoan eskuratutako edukia babesteko. Telefonoan dagoen elementu bat (adibidez, dei-seinale bat) erabilera-araudi batera lotu edo babes daiteke, adibidez, erabil daitekeen aldi-kopurua. Arauak edukien erabilera-eskubideetan definitzen dira, eta edukiarekin edo bakarrik eskura daitezke, zerbitzu-hornitzailearen arabera.

Eskubide horiek eguneratu egin daitezke. Egiaztatu beti eduki guztien entrega-baldintzak eta erabilera-eskubideak erosi aurretik, tarifaren bat eduki baitezakete.

Galeriak memoria partekatua erabiltzen du, ikus 14. orrialdean.

1. Sakatu **Menú** eta aukeratu *Galería*. Aukeren zerrenda bistaratuko da.

2. Aukeratu *Ver carpetas* karpeten zerrenda irekitzeko.

Gainerako aukerak hauek dira:

- *Añadir carpeta, Borrar carpeta, Renombr. carpeta*: Karpeta bat erants dezakezu edo hautatutako karpeten izena alda dezakezu. Jatorrizko karpetak ezin dira ezabatu eta ezin zaie izenik aldatu.
- *Lista derechos uso*: Eskuragarri dauden erabilera-eskubideen zerrenda ikus dezakezu. Joan nahi duzun artxiboraino eta sakatu **Opciones**. Hautatu *Detalles* erabilera-eskubideak ikusteko.
- *Descargas Galería*: Irudiak eta seinaleak deskarga ditzakezu (sare-zerbitzua). Ikus Edukiak eta aplikazioak deskargatzea 15. orrialdean.

3. Karpeta bat irekitzeko, joan nahi duzun karpetaraino eta sakatu **Abrir**. Karpetan dauden artxiboak bistaratzen dira.

**Opciones** sakatzen baduzu, *Galeriako artxiboen aukerak* atalean deskribatutako funtzio batzuetara sar zaitezke (85. orrialdea).

4. Irudi bat ikusteko edo soinu-artxibo bat entzuteko, joan nahi duzun irudiraino edo soinu-artxiboraino eta sakatu **Opciones** eta hautatu *Abrir*.

## Galeriako artxiboen aukerak

Artxibo bat hautatu edo ireki duzunean, **Opciones** saka dezakezu funtzio hauetara sartzeko: *Abrir, Borrar, Enviar, Editar imagen, Mover, Renombrar, Fijar como p. tapiz, Fijar como señal, Detalles, Clasificar, Actualiz. derechos.* Hautatu

- *Enviar*, artxiboa multimedia-mezu gisa edo infragorri bidezko konexioaren bidez bidaltzeko.
- *Editar imagen*, hautatutako irudiari testua, markoak edo clipart-ak eransteko edo irudia mozteko. Sakatu **Opciones** eta hautatu nahi duzun funtzioa.

*Insertar texto* hautatu baduzu, idatzi testua, sakatu **Aceptar** eta mugitu testua desplazamendu-teklak erabilita. **Opciones** sakatzen baduzu, testuko letraren estiloa, tamaina eta kolorea hautatu ahal izango duzu, baita biratu ere. Aldaketak berresteko, sakatu **Opciones** eta hautatu **Aceptar**.

*Insertar marco* edo *Insertar clip-art* hautatzen baduzu, joan nahi duzun irudiraino, sakatu **Opciones** eta hautatu *Insertar*. Mugitu sartutako irudia desplazamendu-teklekin eta sakatu **Aceptar**.

Aldatutako irudia GIF formatuarekin gordetzeko, sakatu **Opciones**, hautatu *Guardar*, editatu irudiaren izena, sakatu **Aceptar** eta hautatu karpeta.

- *Detalles*, adibidez, artxiboaren tamaina eta formatua ikusteko.
- *Clasificar*, artxiboak eta karpetak izenaren, dataren, formatuaren edo tamainaren arabera ordenatzeko.

- *Actualiz. derechos*, hautatutako fitxategiaren erabilera-artxiboak eguneratzeko. Artxiboaren erabilera-eskubideak eguneratzeko aukera badago bakarrik bistaratuko da aukera hau.

Copyright-en babesak direla eta, agian, irudi eta dei-seinale batzuk eta beste eduki batzuk ezingo dituzu kopiatu, aldatu, transferitu edo berriro bidali.

## ■ Multimedia (6. menua)

Menu honen bidez, telefonoan integratutako kamera, FM irratia eta grabagailua erabil ditzakezu.



**Menu horretan sartzeko:** Sakatu **Menú** pantaila hutsik dagoela eta hautatu *Multimedia*.



**Oharra:** *Multimedia* menuko funtzioak erabiltzeko, telefonoak piztuta egon behar du. Ez piztu telefonoa mugikorrek erabiltzea debekatuta dagoen lekuetan edo interferentziak sor ditzakeen edo arriskuren bat ekar dezakeen lekuetan.

## Kamera

Telefonoan integratutako kamerarekin argazkiak egin ditzakezu. Kameraren lentea, telefonoaren atzeko aldean dago. Argazkiak JPEG formatuan gordetzen dira, memoria partekatuan. Ikus 14. orrialdea.

**Menu horretan sartzeko:** Sakatu **Menú** pantaila hutsik dagoela, hautatu *Multimedia* eta *Cámara*.



**Oharra:** Errespetatu ezazu argazkiak ateratzeko indarrean dagoen legeria. Ez erabili funtzio hau legez kontra.


Beste argazki bat ateratzeko behar adina memoria ez badago, argazki zaharrak edo Galeria menuko beste fitxategi batzuk ezabatu beharko dituzu.

## Argazkiak ateratzea

1. *Cámara* menuan, hautatu kameraren modua *Foto estándar*, *Foto retrato* edo *Modo noche*. Hautatu



- Argazkia aurkibideko izen edo telefono-zenbaki bati gehitu nahi badiozu, hautatu *Foto retrato*.
- Argazkia ateratzeko argi gutxi badago, hautatu *Modo noche*.



**Iradokizuna:** Pantaila zuri dagoela kamera bizkor aktibatzeko, sakatu .

2. Erabili pantaila bisore gisa.



**Iradokizuna:** Kameraren modua bizkor aldatzeko, luze sakatu  edo  tekla irudia zuzenean pantailan bistartzen denean.

3. Argazkia ateratzeko, sakatu *Capturar*. Argazkia *Galería* menuko *Imágenes* karpetan gordeko da.

4. Hautatu *Atrás* argazkia ateratzeko, edo sakatu *Opciones*, adibidez, gordetako argazkia handitzeko edo ezabatzeko edo izena aldatzeko, multimedia-mezu gisa bidaltzeko edo aurkibideko izen bati edo zenbaki bati eransteko.





**Iradozikuna:** Kamera konfiguratu dezakezu 10 segundo pasatu ondoren argazkia automatikoki atera dezan. Cámara menuan, hautatu Autotemporizador eta nahi duzun kamera-modua. Sakatu Iniciar. Autotemporizadorea funtzionatzen ari denean, txistu bat emititzen du.

## Kameraren doikuntzak konfiguratzeko

*Cámara* menuan, hautatu *Ajustes* eta

- *Calidad de la imagen*, telefonoak argazkia gordetzen duenean, argazki horren konpresio-maila hautatzeko. Aukeratu *Alta*, *Normal* edo *Básica*. Alta aukerak irudi-kalitate onena eskaintzen du, baina memoria gehiago behar du.
- *Sonidos de la cámara*, obturadorearen eta autotemporizadorearen tonuaren soinua aktibatzeke edo desaktibatzeke.
- *Título predeterminado*, argazkietarako aurrez definitutako izena definitzeko. Aurrez zehaztutako izenburu bat erabili nahi baduzu, hautatu *Automático*. Izenburua zuk definitu nahi baduzu, hautatu *Título personal*.



## Irratia

FM irrata entzun dezakezu, telefonoan integratutako bozgorailuan, DT-1 musika-euskarrian edo esku libreko kit bateragarrian. Bozgorailua erabiltzen duzunean, eduki esku libreko kita telefonora konektatuta. Esku libreko kit eramangarriaren hariak irratiaren antena gisa funtzionatzen du; beraz, aske utzi behar duzu.


Irratia entzuten duzun bitartean, sarrerako deiei erantzun diezakezu edo deiak egin ditzakezu. (E)GPRS edo HSCSD konexioaren bidez datuak bidali edo jasotzen badituzu, interferentziak egon daitezke.

**Menu horretan sartzeko:** Sakatu **Menú** pantaila hutsik dagoela, hautatu *Multimedia* eta *Radio*.

Kontuan izan zu zauden eremuko irrati-emisoraren estalduraren arabera izango dela irrati-emisioaren kalitatea.





1. Irratia pizteko, sakatu **Menú** pantaila zuri dagoela eta aukeratu *Multimedia* eta *Radio*.
2. Aurretik irrati-kanalak gorde badira, entzun nahi duzun kanaleraino joan zaitezke edo, dagozkion zenbaki-teklak sakatuta (etik ra), irrati-kanalaren kokapena aukera dezakezu.





Erabiltzen duzun esku libreko kit bateragarriak tekla bat badu, kanal batetik bestera tekla hori sakatuta joan ahal izango duzu.

3. Irratia itzaltzeko, sakatu **Opciones** eta hautatu *Desactivar* aukera, *Radio* menuan.  
EDO: Luze sakatu  tekla edozein funtziotan zaudela edo pantaila zuri dagoela.

## Irrati-kanalak sintonizatzea eta gordetzea

Irratia aktibatuta dagoenean, kanalak honela aurki ditzakezu *Radio* menuan, eta, ondoren, gorde, geroago erabiltzeko:

- Bilaketa automatikoa: Luze sakatu  edo  tekla bilatzen hasteko. Bilaketa gelditu egiten da kanal bat aurkitzen duenean. Edota: Sakatu **Opciones**, hautatu *Sintonización auto* eta sakatu  edo  bilatzen hasteko.

- Eskuz bilatzea: Sakatu **Opciones** eta hautatu *Sintonizac. manual*, edo sakatu . Sakatu  edo  irratiaren maiztasun-banda batetik bestera mugitzeko, edo luze sakatu bi tekletako bat kanala bizkor bilatzeko.
- Frekuentzia bat sartzea: Sakatu **Opciones** eta hautatu *Fijar frecuencia*, edo sakatu . Sartu entzun nahi duzun kanalaren frekuentzia eta sakatu **Aceptar**.

**Kanala gordetzeko:** Sakatu **Opciones** eta aukeratu *Guardar canal*.

## Irratiarekin lotutako beste aukera batzuk

Radio menuan **Opciones** sakatzen baduzu, funtzio hauetara ere sar zaitezke: *Borrar canal*, *Renombrar*, *Altavoz / ML portátil* o *Salida mono / Salida estéreo*.

Hautatu *Renombrar* kanalaren izena aldatzeko. Aukeratu *Altavoz* (edo *ML portátil*) irratia bozgorailuaren bidez entzuteko (edo esku libreko kit eramangarria erabilita).

## Grabagailua

Adibidez, izen bat eta telefono-zenbaki bat graba ditzakezu, geroago idazteko.

**Menu horretan sartzeko:** Sakatu **Menú** pantaila hutsik dagoela, hautatu *Multimedia* eta *Grabadora*.



**Oharra:** Bete itzazu deien grabaketari buruzko tokian tokiko araudi guztiak. Ez erabili funtzio hau legez kontra.


- Grabatzen hasteko, hautatu *Grabar* (edo sakatu *Opciones* eta hautatu *Grabar* dei batean). Eduki telefonoa posizio normalean, belarritik hurbil.

Grabazioa eteteko, sakatu *Detener*. Grabazioa Galería menuko *Grabs. voz* karpeta gordetzen da.

- Egindako azken grabazioa entzuteko, hautatu *Repetir última*.
- Aurreko grabazioak entzuteko edo kudeatzeko, hautatu *Lista grabaciones*. *Galería* menuan eskura dituzun karpeta zerrenda bistaraten da. Ireki *Grabs. voz*, sakatu *Opciones* eta hautatu erabili nahi duzun funtzioa.
- Azken grabazioa multimedia-mezu gisa edo infragorri bidezko konexio baten bidez beste telefono bateragarri batera bidaltzeko, hautatu *Enviar*.

## ■ Antolatzailea (7. menua)

Menu honen bidez, telefonoan integratutako alarma, agenda eta kalkulagailua erabil ditzakezu.



Menu horretan sartzeko: Sakatu *Menú* pantaila hutsik dagoela eta hautatu *Organizador*.



**Oharra:** *Organizador* menuko funtzioak erabiltzeko, telefonoak piztuta egon behar du. Ez piztu telefonoa mugikorrek erabiltzea debekatuta dagoen lekuetan edo interferentziak sor ditzakeen edo arriskuren bat ekar dezakeen lekuetan.

## Alarma

Alarmak ordu jakin batean jo dezan konfiguratu daiteke telefonoa.

**Menu horretan sartzeko:** Sakatu **Menú** pantaila hutsik dagoela eta hautatu *Organizador* eta *Alarma*.

Alarma definitzeko, hautatu *Hora de alarma* eta *Activar*, idatzi alarmaren ordua eta sakatu *Aceptar*. Alarmaren ordua aldatzeko, aukeratu *Activar*.

Alarmarentzako seinalea definitzeko, aukeratu *Señal de alarma* eta, ondoren, nahi duzun seinalea. Irratia ere hauta dezakezu alarma-seinale gisa.

Alarma aktibatuta badago,  agertuko da pantaila zuri dagoenean.

## Alarma abiaraztea

Telefonoak abisu-tonu bat joko du eta pantailan *¡Alarma!* mezua eta ordua bistaratuko dira. Sakatu **Detener** alarma geldiarazteko. Alarmari minutu batez jotzen uzten badiozu edo **Repetir** sakatzen baduzu, alarma gutxi gorabehera 10 minutu jo gabe egongo da, eta, ondoren, berriro joko du.

Telefonoa itzalita dagoela programaturiko alarma-ordua iristen bada, telefonoa automatikoki piztuko da eta alarma-tonua jotzen hasiko da. **Detener** sakatzen baduzu, telefonoa deiak egiteko aktibatu nahi duzun galdetuko dizu telefonoak, *¿Encender el teléfono?*. Sakatu **No** telefonoa itzaltzeko, edo **Sí** deiak egin eta jasotzeko.



**Oharra:** Ez sakatu **Sí** telefono mugikorrek erabiltzea debekatuta dagoen lekuetan edo interferentziak sor ditzakeen edo arriskurik eragin dezakeen lekuetan.

## Agenda

Ohar-mezuak, egin beharreko deiak, bilerak eta urtebetetze-egunak kudeatzeko erabil dezakezu agenda. Agendak memoria partekatua erabiltzen du, ikus 14. orrialdean.

**Menu horretan sartzeko:** Sakatu **Menú** pantaila hutsik dagoela eta hautatu *Organizador* eta *Agenda*. Egutegian hilabetea bistaratzen da. Desplazamenduteklak erabilia, egun, aste eta hilabete jakin batera mugi zaitzake.



**Iradokizuna:** Agenda bizkor irekitzeko, sakatu **)** pantaila zuri dagoela.

### Agendaren ikuspegiak erabiltzea

- **Hilabeteko ikuspegia:** Aukera honetan, hileko asteak bistaratzen dira. Egunaren inguruko koadroak adierazten du uneko data. Egun horretarako oharren bat definituta badago, beltzez agertuko da. Egun jakin baterako oharrak ikusteko ("eguneko ikuspegia"), mugitu ikusi nahi duzun eguneraino, sakatu **Opciones** eta hautatu *Notas del día*.

**Opciones** sakatzen baduzu, funtzio hauetara ere sar zaitzake: *Vista de la semana*, *Crear una nota*, *Ir a fecha*, *Ajustes*. Hautatu

- *Ajustes* eguna eta ordua doitzeko edo formatua, karaktereak bereizteko zeinua (adibidez, -) edo asteko lehen eguna (*Comienzo semana*) hautatzeko. *Borrado auto* aukerarekin, denbora-tarte jakin bat pasatzen denean, ohar zaharrak automatikoki ezabatzeko konfiguratu daitezke telefonoa.

- **Eguneko ikuspegia:** Ikuspegi honetan, hautatutako egunerako definitutako oharrak bistaritzen dira. Ohar batetik bestera mugi zaitezke ▼edo ▲sakatuta, eta egun batetik bestera ( edo ) sakatuta. Sakatu **Opciones** eta hautatu *Ver* hautatutako oharra ikusteko ("oharrak bistaratzea").

**Opciones** sakatzen baduzu, funtzio hauetara ere sar zaitezke: *Crear una nota, Borrar, Editar, Mover, Repetir, Ir a fecha, Enviar nota, Copiar, Ajustes*. Hautatu





- *Repetir*, oharra zer maiztasunekin errepikatuko den hautatzeko.
- **Oharrak bistaratzea:** Bistaratze-mota honekin eguneko ikuspegian irekitako oharra ikus daiteke.

Sakatu **Opciones** funtzio hauetan sartzeko: *Editar, Borrar, Mover, Repetir, Enviar nota, Copiar, Ajustes*.

## Agendan ohar bat sortzea

Hileko, asteko edo eguneko ikuspegian sor ditzakezu ohar berriak.

Hileko edo asteko ikuspegian, mugitu nahi duzun eguneraino, sakatu **Opciones** eta hautatu *Crear una nota*. Eguneko ikuspegian, sakatu **Opciones** eta hautatu *Crear una nota*.



Aukeratu ohar-mota hauetako bat:  *Reunión*,  *Llamar a*,  *Cumpleaños*,  *Memorándum*,  *Nota de aviso*.

Sortu ohar bat eta gorde. Adibidez, bilera baterako oharra alarmarekin gordetzeko, hauxe egin:

Idatzi bileraren gaia, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Guardar*. Idatzi bilera non egingo den, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Guardar*. Sartu hasierako ordua eta sakatu **Aceptar**.

Idatzi bileraren amaieraren ordua eta sakatu **Aceptar**. Oharrerako alarma definitzeko, aukeratu *Con sonido* edo *Silenciosa* (alarma-seinalerik gabe) eta definitu alarmaren ordua.

## Ohar bati lotutako alarma aktibatzea

Telefonoak soinu bat emititzen du eta pantailan oharra agertzen da. Dei-ohar bat agertzen denean,  , bistaratutako zenbakira dei dezakezu  tekla sakatuta.

Alarma geldiarazi eta oharra ikusteko, sakatu **Ver**. Oharra bistaritzen ari zarela **Repetir** sakatzen baduzu, alarma hamar bat minutuz gelditzen da eta, ondoren, berriro jotzen du.



Alarma oharra ikusi gabe gelditzeko, sakatu **Salir**.

## Kalkulagailua

Telefonoak kalkulagailua du, eta gutxi gorabeherako moneta-bihurketak egiteko ere erabil daiteke.

**Menu horretan sartzeko:** Sakatu **Menú** pantaila zuri dagoela, eta aukeratu *Organizador* eta *Calculadora*.


Kalkulagailu honek zehaztasun mugatua du, eta biribiltzerakoan akatsak egin ditzake, bereziki zatiketa luzeetan.

1. Idatzi kalkuluko lehen zenbakia. Sakatu  hamarrenen koma jartzeko.
2. Sakatu **Opciones** eta aukeratu *Sumar*, *Restar*, *Multiplicar*, *Dividir*, *Cuadrado*, *Raíz cuadrada* edo *Cambiar signo*. **EDO:** Sakatu  behin batuketa egiteko, bitan kenketa egiteko, hirutan biderketa egiteko eta lautun zatiketa egiteko.
3. Idatzi bigarren zenbakia, kalkulurako beharrezkoa bada.



4. Guztizkoa kalkulatzeko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Resultado*.
5. Luze sakatu **Borrar** tekla beste kalkulu bat egiteko.

## Moneta-trukea egitea

1. Truke-tasa gordetzeko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Tipo de cambio*. Hautatu bihurketetarako erabilgarri dauden aukeretako bat. Sar ezazu truke-tasa (erabili  hamartarren koma sartzeko) eta sakatu **Aceptar**.
2. Moneta-trukea egiteko, sartu nahi duzun kantitatea, sakatu **Opciones** eta hautatu *A nacional* edo *A extranjera*.



**Irudokizuna:** Pantaila zuri dagoela, moneta-trukea egiteko, sartu kantitatea, sakatu **Opciones** eta hautatu *A nacional* edo *A extranjera*.

## ■ Aplikazioak (8. menua)

Menu honen bidez, telefonoan instalatutako Java jokoak eta aplikazioak erabili eta kudea ditzakezu.



**Menu honetan sartzeko:** Sakatu Menú pantaila hutsik dagoela eta hautatu *Aplicaciones*.

Telefonoak Java 2 Micro Edition (J2METM) onartzen du; tamaina txikiko kontsumo-produktu elektronikoetarako bereziki diseinatutako Java teknologiaren bertsioa da.

Java aplikazio bat erabili aurretik, telefonora transferitu behar duzu. Java aplikazioek memoria partekatua erabiltzen dute. Ikus 14. orrialdea.




**Oharra:** *Aplicaciones* menuko funtzioak erabiltzeko, telefonoak piztuta egon beharko du. Ez piztu telefonoa mugikorrak erabiltzea debekatuta dagoen lekuetan edo interferentziak sor ditzakeen edo arriskuren bat ekar dezakeen lekuetan.

## Jokoak

Menu honekin, telefonoan instalatutako Java jokoak erabil ditzakezu.

**Menu horretan sartzeko:** Sakatu **Menú** pantaila hutsik dagoela eta hautatu *Aplicaciones y Juegos*.

Jokoen doikuntzak: Hautatu *Ajustes* jokorako soinuak, argia eta bibrazioa (*Vibración*) definitzeko. *Ajustes de tonos* menuko *Aviso por vibración* funtzioa desaktibatuta dagoenean, telefonoak ez du bibratzen, ez eta *Vibración* aukera aktibatuta egonda ere.

Joko bat abiarazteko, hautatu *Seleccionar juego*, joan hautatutako jokora eta sakatu  edo sakatu *Opciones* eta hautatu *Abrir. Opciones* saka dezakezu, *Colección* menuko funtzio berberak erabiltzeko aukera izateko. Kontuan izan joko batzuk erabiltzen badituzu telefonoaren bateria askoz azkarrago gastatuko dela (eta baliteke telefonoa kargagailura konektatu behar izatea).


Jokoetarako erabilgarri dagoen memoria-kantitatea ikusteko, hautatu *Memoria*.

Joko bat telefonora deskargatzeko, hautatu *Descargas juegos* eta ikus Edukiak eta aplikazioak deskargatzea, 15. orrialdean. Joko bat deskargatzerakoan, *Aplicaciones* menuan gorde daiteke, *Juegos* menuan gorde beharrean.

## Bilduma

Menu honen bidez, telefonoan instalatutako Java aplikazioak erabili eta kudea ditzakezu.

**Menu horretan sartzeko:** Sakatu **Menú** pantaila hutsik dagoela eta hautatu *Aplicaciones y Colección*.

Aplikazio bat abiarazteko, hautatu *Seleccionar aplic.* Joan erabili nahi duzun aplikaziora edo aplikazio-multzora. Sakatu **Opciones** eta hautatu *Abrir*, edo sakatu  aplikazioa abiarazteko edo aplikazio-multzoa irekitzeko.

Kontuan izan zenbait aplikazio erabiltzen baduzu telefonoaren bateria askoz azkarrago gastatuko dela (eta baliteke telefonoa kargagailura konektatu behar izatea).

## Aplikazio baterako edo aplikazio-multzo baterako beste aukera batzuk

Ondoren aipatzen diren funtzioetara sartzeko, sakatu **Opciones** aplikazioen zerrendan. Hautatu

- *Borrar*, aplikazio bat edo aplikazio-multzo bat telefonotik ezabatzeko.
- *Acceso a la web*, aplikazioaren sarerako sarbidea sarera mugatzeko. Sakatu *Preguntar antes* telefonoak sartzen zaren bakoitzean galdera egiteko, *Permitido* sartzea onartzeko edo *No permitido* sartzen ez uzteko.
- *Actualizar versión*, Interneteko zerbitzu batetik aplikazioaren bertsio berri bat bilatzeko (sare-zerbitzua).

- *Página web*, aplikazioarekin lotutako Interneteko orri batera sartzeko. Aplikazioak orriaren helbidea badu bakarrik bistaritzen da aukera hau.
- *Conectar vía*, aplikazioak behar izanez gero, telefonoak zerbitzu-doikuntza jakin batzuk erabil ditzan. Telefonoak lehenespenez erabiltzen ditu nabigatzailearen zerbitzu-doikuntzak.
- *Detalles*, aplikazioari buruzko informazio osagarria ikusteko.

## Java aplikazio bat deskargatzea

Java aplikazio berriak honela deskarga daitezke:

- *Colección* menuan, hautatu *Descargas aplics.* Informazio xeheagoa eskuratzeko, ikus Edukiak eta aplikazioak deskargatzea, 15. orrialdean.
- Sakatu *Menú* pantaila zuri dagoela, eta hautatu *Servicios*, Java aplikazioa deskargatu nahi duzun nabigatzailearen orrira sartzeko.
- Erabili *Juegos* menuko *Descargas juegos* funtzioa.
- Erabili Nokia PC Suite softwareko Nokia Application Installer, aplikazio berriak PC bateragarritik telefonora transferitzeko.



Kontuan izan Nokiak ez duela inolako bermerik ematen Nokiarenak ez diren guneetatik datozen aplikazioentzat. Java aplikazioak horietatik deskargatzea erabakitzen baduzu, beste edozein lekutan hartuko zenituzkeen ardura berak hartu beharko dituzu segurtasunari eta edukiari dagokienez.

Joko bat edo aplikazio bat deskargatzerakoan, gogoratu *Juegos* menuan gorde daitezkeela *Colección* menuan gorde beharrean.

## Memoriaren egoera egiaztatzea

Java aplikazioetarako zenbat memoria dagoen egiaztatzeko, hautatu *Colección* menuko *Memoria* aukera.

## ■ Zerbitzuak (9. menua)



Menu honek zenbait zerbitzutara sartzeko erabil daitekeen nabigatzailea du. Adibidez, zerbitzu horiek finantza-informazioa, informazio meteorologikoa, albisteak edo hegaldien ordutegiei buruzkoa eduki dezakete.

**Menu horretan sartzeko:** Sakatu **Menú** pantaila hutsik dagoela eta hautatu *Servicios*.



**Oharra:** Funtzio hau erabiltzeko, telefonoak piztuta egon behar du. Ez piztu telefonoa mugikorrek erabiltzea debekatuta dagoen lekuetan edo interferentziak sor ditzakeen edo arriskuren bat ekar dezakeen lekuetan.

Nabigazio-zerbitzuen erabilgarritasunaren, prezioen eta tarifen berri izateko, jarri harremanetan zure sare-operadorearekin edo zerbitzu-hornitzailearekin. Zerbitzu-hornitzaileek ere adieraziko dizute nola erabili haien zerbitzuak.

Telefonoaren modu anitzeko nabigatzailearekin, Wireless Mark-Up Language (WML) edo extensible HyperText Markup Language (xHTML) erabiltzen duten zerbitzuak ikusi ahal izango dituzu haien orrietan.

## Nabigazio-zerbitzuetara sartzeko eta horiek erabiltzeko oinarriko prozedura

1. Gorde itzazu erabili nahi duzun zerbitzura sartzeko beharrezko doikuntzak. Ikus 101. orrialdea.

2. Ezarri konexioa aukeraturiko zerbitzuarekin. Ikus 103. orrialdea.
3. Hasi nabigatzen zerbitzuaren orrietatik. Ikus 104. orrialdea.
4. Nabigatzen bukatzen duzunean, eten zerbitzuarekin duzun konexioa. Ikus 105. orrialdea.

## Telefonoa nabigazio-zerbitzuak erabiltzeko konfiguratzea

Erabili nahi duzun wap zerbitzua eskaintzen duen sare-operadorearen edo zerbitzu-hornitzailearen OTA (Over The Air) mezu gisa jaso daitezke zerbitzu-doikuntzak. Doikuntzak eskuz ere sar ditzakezu edo Nokia PC Suite-rekin definitu edo editatu. Informazio gehiago edo doikuntza egokiei buruzko informazioa izateko, jarri harremanetan sare-operadorearekin edo zerbitzua eskaintzen duen zerbitzu-hornitzailearekin. Doikuntzak, esate baterako, web orrietan egon daitezke eskura.

## Mezu gisa jasotako zerbitzu-doikuntzak babestea

- Jasotako doikuntzak gordetzeko, sakatu *Opciones* eta aukeratu *Guardar*.
- Jasotako doikuntzak ikusteko edo baztertzeko, sakatu *Opciones* eta aukeratu *Ver* edo *Descartar*.

## Zerbitzu-doikuntzak eskuz sartzea

1. *Servicios* menuan, hautatu *Ajustes*, *Ajustes de conexión* eta *Ajustes de servicio activos*.

2. Joan aktibatu nahi duzun konexioraino eta sakatu **Activar**. Zerbitzu batekin konektatzeko behar diren doikuntzak osatzen dute konexio-sorta.
3. Aukeratu *Editar ajustes de servicio activos*.
4. Aukeratu doikuntzak banan-banan eta sare-operadoreak edo zerbitzu-hornitzaileak emandako informazioaren arabera beharrezkoak diren doikuntza guztiak.

### **Itxuraren doikuntzak**

1. Nabigazioan, sakatu **Opciones** eta hautatu *Otras opciones* eta *Ajustes aspecto*. Edo, *Servicios* menuan, hautatu *Ajustes* eta *Ajustes de aspecto*.
2. Hautatu
  - *Ajuste de líneas de texto*, testua lerro batean bistaratu ezin denean, testua hurrengo lerrora pasatzea nahi duzun definitzeko.
  - *Mostrar imágenes*, nabigatzailearen orrietan, irudiak bistartzeko edo ezkutatzeko.
  - *Tamaño de fuente*, nabigatzailearen orrietan, bistaratutako testuaren tamaina hautatzeko.
  - *Codificación de caracteres* erabil daiteke telefonoak informazio hori ez duten nabigatzaileko orriak bistartzeko erabiltzen dituen karaktere-multzoa hautatzeko, edo, telefono bateragarri batera web helbide bat bidaltzean, UTF-8 kodifikazioa erabiliko den hautatzeko.


### **Cookie-n doikuntzak**

Telefonoa cookie-ak jasotzea onartzeko edo ez onartzeko moduan konfiguratu daiteke.

Cookie bat datu-elementu bat da, adibidez, telefonoak cache-memorian gordetzen duen erabiltzaileari buruzko informazioa. Datu horiek cache-memoria ezabatzen denean desagerrarazten dira, ikus 107. orrialdea.


1. Nabigazioan, sakatu **Opciones** eta hautatu *Otras opciones, Seguridad* eta *Cookies*. Edo, menuan, hautatu *Servicios* eta, ondoren, *Ajustes, Ajustes de seguridad* eta *Cookies*.
2. Hautatu *Permitir* edo *Rechazar*.

## Nabigazio-zerbitzu batekin konektatzea

1. Aktibatu erabili nahi dituzu zerbitzuaren doikuntzak.  
Servicios menuan, hautatu *Ajustes* eta *Ajustes de conexión*. Aukeratu *Ajustes de servicio activos*, mugitu nahi duzun konexioraino eta sakatu **Activar**.
2. Ezarri konexioa honela:
  - Ireki orri nagusia , adibidez, zerbitzu-hornitzailearen hasierako orria: *Servicios* menuan, hautatu **Inicio**. EDO: Luze sakatu  tekla, pantaila zuri dagoela.
  - Aukeratu zerbitzuaren gogokoa: *Servicios* menuan, hautatu *Favoritos* eta nahi duzun gogokoa.

Hautaturiko gogokoa aktibatuta dauden zerbitzu-doikuntzekin ez badabil, aktiba ezazu zerbitzu-doikuntzako beste multzo bat eta saia zaitetz berriz.







- Idatzi zerbitzuaren helbidea: *Servicios* menuan, hautatu *Ir a dirección*, sartu helbidea (sakatu  karaktere bereziak idazteko) eta sakatu *Aceptar*.

## Zerbitzu baten orrietan nabigatzea

Zerbitzu batekin konektatu ondoren, haren orrietan nabigatzen has zaitezke. Telefonoko teklen funtzioa zerbitzuen arabera alda daiteke. Segitu pantailako informazio-testuetan agertuko diren jarraibideei.

Datu-garraiatzaile gisa GPRS hautatzen baduzu, ikus **GPRS 75**. orrialdean, konexioan bistaritzen diren (E)GPRS adierazleak zein diren jakiteko.

## Nabigatzean telefono-teklak erabiltzea

- Erabili desplazamendu-teklak orrian mugitzeko.
- Sakatu  nabarmenduriko elementu bat aukeratzeko.
- Letrak eta zenbakiak sartzeko, erabili  -  teklak. Karaktere bezeriak sartzeko, sakatu .

## Nabigazioan dauden aukerak


Aukera hauetako batzuk erabilgarri egon daitezke nabigazioan. Sakatu **Opciones** eta hautatu nahi duzun aukera. Zerbitzu-hornitzaileak aukera gehiago eskain ditzake.

Hauek dira aukerak: *Abrir*, *Inicio*, *Accesos directos*, *Añadir favorito*, *Favoritos* (ikus 106. orrialdea), *Enlaces descargas*, *Guardar en carp.*, *Otras opciones*, *Volver a cargar*, *Abandonar* (konexioa amaitzeko, ikus 105. orrialdea).

## Hautatu

- *Inicio*, zerbitzu-hornitzailearen hasierako orrira itzultzeko.
- *Accesos directos*, esate baterako, orriko aukera espezifikoen zerrenda berri bat irekitzeko.
- *Añadir favorito*, uneko orria gogokoen karpetan gordetzeko.
- *Enlaces descargas*, gogokoen zerrenda bistaratzeko, edukiak deskargatzeko. Informazio gehiago eskuratzeko, ikus 2. pausoa **Edukiak eta aplikazioak deskargatzea atalean, 15. orrialdean.**
- *Otras opciones*, erabilgarri dauden beste aukera batzuen zerrenda ikusteko. Horien artean hauek daude: *Usar detalle* (esate baterako, orri bateko telefono-zenbakia kopiatzeko), *Ir a dirección*, *Buz. entrada serv.* (ikus 107. orrialdea), *Ajustes aspecto* (ikus 102. orrialdea), *Seguridad* (segurtasunari eta cookien doikuntzari buruzko informaziorako), *Borrar la caché* (ikus 107. orrialdea).
- *Volver a cargar*, berriro kargatzeko eta uneko orria eguneratzeko.

## Nabigazio-zerbitzu batetik deskonektatzea

Nabigazioa amaitu eta konexioa bertan behera uzteko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Abandonar* eta pantailan *¿Desea dejar de navegar?* mezua agertzen denean, sakatu **Sí**. EDO: luze sakatu  tekla.



**Oharra:** Sartu zareneko informazioa edo zerbitzuak telefonoaren cache memorian jasotzen dira. Cachea tarteko memoria da, datuak aldi baterako gordetzeko erabiltzen dena. Pasahitza eskatzen duen informazio konfidentzialera sartzen saiatu bazara edo sartu bazara (esate baterako, zure banku-kontura), hustu telefonoaren cachea erabiltzen duzun bakoitzean.

Cachea husteko, ikus **Cache memoria ezabatzea**, 107. orrialdean.

## Gogokoak

Telefonoaren memorian gogoko gisa gordetako orrietako helbideak erabiltzeko eta kudeatzeko:

1. Nabigazioan, sakatu **Opciones** eta hautatu *Favoritos*, edo hautatu *Favoritos* aukera *Servicios* menuan.
2. Joan nahi duzun markagailuraino eta sakatu **Opciones**.
3. Aukeratutako *Ir a* aukeratutako gogokoarekin lotuta dagoen orriarekin konektatzeko. Horrez gain, besteak beste, gogokoak editatu edo ezaba ditzakezu, beste telefono batera bidal ditzakezu, zuk hautatutako karpeta batean sar ditzakezu edo gogoko gehiago hauta ditzakezu.

Kontuan izan zure telefonoak Nokiarekin loturiko eta aurrez zehazturiko zenbait gogoko izan ditzakeela. Nokiak ez ditu gune horiek bermatzen eta babesten. Horietara sartzen bazara, Interneteko beste edozein lekutan hartuko zenituzkeen ardura berak hartu beharko dituzu segurtasunari eta edukiari dagokienez.

### Gogokoak hartzea

Gogoko bat OTA mezu gisa jasotzen duzunean, sakatu **Opciones** eta hautatu *Ver* bistaratzeko, *Guardar* gogokoen zerrendan gordetzeko edo *Descartar* ez onartzeko.

## Zerbitzuko sarrerako postontzia

Telefonoak zure zerbitzu-hornitzaileak igorritako zerbitzu-mezuak ("hedapen-mezuak") jaso ditzake (sare-zerbitzua).

Telefonoa zerbitzu-mezuak hartzeko moduan konfiguratzeko: *Servicios* menuan, aukeratu *Ajustes*, *Ajustes de buzón entrada de servic.* eta, ondoren, *Mensajes de servicio* eta *Activar*.

Zerbitzuaren mezuan adierazitako edukia automatikoki bilatzeko moduan konfiguratzeko telefonoa: *Servicios* menuan, aukeratu *Ajustes*, *Ajustes de buzón entrada de servic.* eta, ondoren, *Conexión automática* eta *Activar*.

Zerbitzu-mezu bat ikusteko:

1. Sakatu *Mostrar* mezua berehala ikusteko, edo sakatu *Salir* geroago ikusteko, *Servicios* menuko *Buz. entrada serv.* aukeran. EDO: Nabigazioan, sakatu *Opciones* eta hautatu *Otras opciones* eta *Buz. entrada serv.*
2. Mugitu nahi duzun mezuraino eta sakatu *Opciones*. Hautatu *Recuperar* mezuan adierazitako edukia bilatzeko, *Detalles* zerbitzu-mezuko xehetasunak ikusteko edo *Borrar* mezua ezabatzeko.

## Cache memoria ezabatzea

*Servicios* menuan, hautatu *Borrar la caché*. EDO: Nabigazioan, sakatu *Opciones* eta hautatu *Otras opciones* eta *Borrar la caché*.

## Nabigatzailearen segurtasuna

Segurtasuneko funtzioak beharrezkoak izan daitezke zerbitzu batzuetarako, adibidez, bankuko zerbitzuetarako. Horrelako konexioetarako segurtasun-ziurtagiriak behar dira, eta, agian, SIM txartelean erabilgarri egon daitekeen segurtasun-modulu bat. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

### Segurtasun-modulua

Segurtasun-moduluak ziurtagiriak eta pasahitz publiko eta pribatuak izan ditzake. Segurtasun-moduluak segurtasun-zerbitzuak hobetzen ditu, nabigatzaileko konexioa behar duten funtzioetarako, eta sinadura digitala erabiltzeko aukera ematen du. Zerbitzu-hornitzailea arduratuko da ziurtagiriak segurtasun-moduluan gordetzeaz.


*Servicios* menuan, aukeratu *Ajustes*, *Ajustes de seguridad* eta *Ajustes de módulo de seguridad*. Hautatu

- *Detalles módulo de seguridad*, segurtasun-moduluaren izenburua, egoera, fabrikatzailea eta serie-zenbakia ikusteko.
- *Petición de PIN del módulo* eta *Activar*, telefonoa segurtasun-moduluko zerbitzuak erabiltzean moduluarren PINa eskatzeko moduan konfiguratzeko.
- *Cambiar PIN del módulo*, moduluarren PINa aldatzeko, segurtasun-moduluak horretarako aukera ematen badu.

### Ziurtagiriak

Telefonoak hiru ziurtagiri-mota onartzen ditu. zerbitzariaren ziurtagiriak, autoritate-ziurtagiriak eta erabiltzaile-ziurtagiriak. Ziurtagiri hauek zerbitzu-hornitzaileari eska diezazkiokezu.

Zerbitzu-hornitzailea arduratuko da autoritate- eta erabiltzaile-ziurtagiriak segurutasun-moduluan gordetzeaz. Zerbitzu honi eta haren erabilgarritasunari buruzko informazio gehiago izateko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

Konexio batean  segurtasun-adierazlea agertzen da, telefonoaren eta pasabidearen edo zerbitzariaren (*Editar ajustes de servicios activos* aukerako *Dirección de IP* gisa identifikatuta) arteko datu-transmisioa enkriptatua badago. Hala ere, segurtasun-adierazleak ez du esan nahi pasabidearen eta eduki-zerbitzariaren (eskatutako baliabidea biltegitratzen duen lekua) arteko datuen transmisioa ziurra denik. Pasabidearen eta edukien zerbitzariaren arteko datu-transmisioa ziurtatzea zerbitzu-hornitzailearen esku dago.

## ■ Joan hona (10. menua)

Menu honetan, zenbait funtzio aktiba ditzakezu. Funtzio horietara, pantaila zuri dagoela *Ir* a sakatuta sartzen da.



**Menu horretan sartzeko:** Sakatu *Menú* pantaila hutsik dagoela eta hautatu *Ir* a.

Zerrendatik funtzio gehiago kentzeko edo gehiago eransteko, ikus *Zuzeneko sarbide pertsonalak*, 73. orrialdean.

## ■ SIM zerbitzuak (11. menua)

Telefonoan erabilgarri dauden funtzioez gain, zure SIM txartelak, menu honetako zerbitzuez gain, beste zerbitzu osagarri batzuk ere eskain ditzake. SIM txartelak onartzen badu bakarrik dago erabilgarri menu hau. Menuaren izena eta edukia eskura dauden zerbitzuen menpe daude.





**Nota:** SIM zerbitzuen erabilgarritasunari, tarifei eta informazioari buruzko zehaztasun gehiago izateko, jarri harremanetan zure SIM txartelaren banatzailearekin: sare-operadorea, zerbitzu-hornitzailea edo beste hornitzailearen bat.

SIM zerbitzu bat erabiltzen duzunean telefonoaren eta sarearen artean bidalitako berrespen-mezuak bistaratzeko moduan konfigura dezakezu telefonoa. Hautatu *Confirmar acciones de servicio de SIM* doikuntzako *Si* aukera, ikus 80. orrialdea.

Zerbitzu horietara sartzeak testu-mezu bat (SMS) igortzea edo telefono-dei bat norberaren kargu egitea ekar dezake.

## 6. Bateriari buruzko informazioa

---

### ■ Kargatzea eta deskargatzea

Telefonoak elikadura elektrikoa jasotzen du, berriz kargatzen den bateria baten bidez.

Kontuan hartu bateria baten erabateko errendimendua bi edo hiru aldiz erabat kargatu eta deskargatu ondoren soilik lortzen dela!

Bateria sarritan karga eta deskarga daiteke, baina denborarekin gastatu egingo da. Funtzionamendu-denbora (elkarrizketa eta deiak jasotzeko/egiteko egoera) ohikoa baino askoz ere laburragoa denean, bateria berri bat erosi beharko duzu.

Telefonoaren fabrikatzaileak soilik onetsitako bateria erabil ezazu eta fabrikatzaileak onetsitako kargagailuekin soilik kargatu berriz bateria. Kargagailua erabiltzen ari ez zarenean, deskonekta ezazu. Ez utzi bateria kargagailu bati konektatuta astebete baino gehiago, gainkargak haren iraupena labur baitezake. Erabiltzen ez den eta erabat kargaturik dagoen bateria bat bere kasa deskargatuko da denboraldi baten buruan.

Muturreko tenperaturek bateriaren karga-ahalmenari eragin diezaiokete. Erabili bateria diseinatu zuteneko helbururako soilik. Ez erabili inoiz kargagailua edo bateria hondatuta badaude.

Ez egin zirkuitulaburrik bateriari. Ustekabeko zirkuitulaburra sor daiteke, esate baterako, sakelan edo zorroan metalezko objektu baten ondoan (txapon bat, klip bat edo bolaluma bat) ordezkotako bateria badaramazu, horrek bateriaren + eta - terminalen (bateriaren atzealdean dauden metalezko bandak) zuzeneko konexioa eragiten baitu. Terminalen zirkuitulaburrak bateria edo horri konektaturiko objektua honda ditzake.



Bateria leku hotzetan edo beroetan uzten baduzu, esate baterako, udan edo neguan erabat itxita dagoen ibilgailuan, bateriaren ahalmena eta iraupena murriztu egingo dira. Saia zaitez beti 15 °C eta 25 °C (59 °F eta 77 °F) artean izaten. Bateria hotzegia edo beroegia duen telefonoak baliteke denboraldi batean ongi ez funtzionatzea, baita erabat kargatuta badago ere. Izozte-puntuaren azpitik dauden tenperaturek bereziki mugatzen dute bateriaren errendimendua.

Ez bota sutara bateriarik!

Bota bateriak tokian tokiko arauen arabera (adibidez, birziklatu). Ez bota bateriak zakarrontzira.

## ZAINKETA ETA MANTENTZE-LANA

---

Telefono hau diseinu eta fabrikazio bikaineko produktua da eta arduraz zaindu behar da. Ondoren bilduriko iradokizunak lagungarri izango zaizkizu berme-baldintzak bete eta produktu honetaz urteetan gozatzeko.

- Ez utzi telefonoa eta haren pieza osagarriak haurren eskueran.
- Ez busti telefonoa. Euriak, hezetasunak eta likidoek zirkuitu elektronikoak oxida ditzaketen mineralak dituzte.
- Ez erabili eta ez gorde telefonoa leku zikinetan edo hautsez betetakoetan. Pieza mugikorrek hondatu egin daitezke.
- Ez gorde telefonoa leku beroetan. Tenperatura altuek gailu elektronikoek iraupena gutxitu dezakete, bateria kalte dezakete eta zenbait plastiko deformatu edo desegin egin ditzakete.
- Ez gorde telefonoa leku hotzetan. Irratiak ohiko tenperatura berreskuratzen duenean, hezetasuna sor daiteke barrualdean, eta horrek zirkuitu elektronikoek plakak kalte ditzake.
- Ez saiatu telefonoa irekitzen. Telefonoa espezializatu gabeko pertsonen manipulatu badute, kalteak eragin diezazkiokete.
- Ez utzi lurrera erortzen, ez kolperik eman eta ez mugitu zakarki telefonoa. Zakarki manipulatu baduzu, barne-zirkuituetako plakak hautsi egin daitezke.
- Ez erabili produktu kimiko kaltegarriak, disolbagarriak edo garbigarri sendorik telefonoa garbitzeko.
- Ez pintatu telefonoa. Pinturak pieza mugikorrek oztopa ditzake eta behar bezala funtzionatzea galaraz dezake.

- Fabrikatzaileak emandako antena edo hark onartutako ordezkua bakarrik erabili. Baimendu gabeko antenak erabilia, aldaketak eginda edo piezak erantsita, telefonoa kaltetu egin daiteke eta irratiei aplikatzen diren arauak urra daitezke.

Gomendio horiek guztiak berdin-berdin aplikatzen zaizkie telefonoari, bateriari, kargagailuari eta gainerako osagarriei. Horietakoren bat behar bezala ez badabil, eraman hurbilen duzun baimenduriko banatzaileari. Bertako langileek arazoa konpontzen lagunduko dizute, eta, hala behar izanez gero, zerbitzu teknikoa eskainiko dizute.

# SEGURTASUNARI BURUZKO INFORMAZIO GARRANTZITSUA

---

## ■ Errepideko segurtasuna

Ez erabili irrati mugikorra gidatzen ari zarenean. Jarri beti telefonoa bere euskarrian, ez utzi kopilotuaren eserlekuan edo talka eginda edo bat-batean geldituta aska daitekeen lekuan.

Gogoratu: Errepidean kontuz ibiltzea da funtsezkoena!

## ■ Ingurune operatiboa

Errespeta ezazu zu zauden tokian indarrean dagoen araudi berezia eta itzali telefonoa erabiltzea debekatuta dagoenean, interferentziak eragin ditzakeenean edo arriskutsua izan daitekeenean. Erabili telefonoa funtzionamenduko posizio normaletan soilik.

Zenbait osagarri magnetikoak dira. Telefonoak metalezko materialak erakar ditzake, eta audiofona duten pertsonak ez lukete telefonoa belarrira hurbildu behar audiofona jarrita badute. Jarri beti telefonoa bere euskarrian, audiofona metalezko piezak erakar baititzake. Ez jarri kreditu-txartelik, ez bitarteko magnetikoak ere telefonotik gertu, horietan gordetako informazioa ezaba baitaiteke.

## ■ Gailu elektronikoak

Ekipo elektroniko moderno gehienek irrati-maiztasuneko (RF) seinaleen aurkako babesa dute. Hala ere, baliteke ekipo elektroniko jakin batzuk zure telefono mugikorraren IM seinaleetatik babesturik ez egotea.

## **Taupada-markagailua**

Taupada-markagailuen fabrikatzaileek telefono mugikorraren eta taupada-markagailuaren artean gutxienez 20 cm-ko distantzia izateko gomendatzen dute, taupada-markagailuarekin interferentziak sortzea galarazteko. Gomendio horiek ikerketa independenteen eta telefonia mugikorreko ikerketa teknologikoen ondorioak dira. Taupada-markagailua erabiltzen duten pertsonek:

- Telefonoa aktibatuta dagoenean, taupada-markagailutik gutxienez 20 cm-ra eduki behar dute;
- Telefonoa ez dute eraman behar bularraren parean dagoen sakelan.
- Taupada-markagailuaren aurkako aldeko belarrian erabili behar dute interferentzia-arriskua ahal bezainbeste murrizteko.
- Interferentziaren bat gertatzen ari den susmorik baduzu, deskonektatu berehala telefonoa.

## **Entzuteko aparatua**

Zenbait telefono mugikor digitalek interferentziak eragin ditzakete audiofono jakin batzuekin. Horrelako interferentziak gertatzen badira, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

## **Beste zenbait tresna mediko**

Irrati-transmisioko ekipoek, telefono mugikorrek barne, interferentziak eragin ditzakete behar bezala babestuta ez dauden tresna medikoen funtzionamenduan. Kotsultatu mediku batekin edo aparatu medikoaren fabrikatzailearekin, IM kanpo-seinaleen aurka behar bezala babestuta dauden jakiteko edo edozein zalantza argitzeko. Deskonektatu telefonoa hala adierazten dizuten erietxeetako leku berezietan. Litekeena da ospitale eta erietxeetan IM kanpo-seinaleekiko sentikorrek diren ekipoak erabiltzea.

## Ibilgailuak

Behar bezala instalatuta edo babestuta ez dauden motordun ibilgailuetako sistema elektronikoei eragin diezaiekete IM seinaleek (esate baterako, injekziozko sistema elektronikoa, ibilgailuen balaztak blokeatzea eragozten duen balazta-sistema elektronikoa –ABS–, abiadura kontrolatzeko sistema elektronikoa, airbag-sistemak). Egiaztatu alderdi horiek zure ibilgailuaren fabrikatzailearekin edo haren ordezkariarekin. Zure ibilgailuari geroago sartu zaizkion ekipoei buruzko kontsulta ere egin diezaiokezu fabrikatzaileari.

## Informazio-oharrak

Deskonektatu telefonoa hala eskatzen dizuten lekuetan.

## ■ Leherketak gerta daitezkeen inguruak

Deskonektatu telefonoa leherketak gerta daitezkeen eremuetan, eta bete seinale eta argibide guztiak. Eremu horietako txinpartek ezta edo suteak eragin ditzakete, kalte pertsonalak eragin ditzaketenak, baita heriotza ere.

Erabiltzaileei jakinarazten zaie telefonoa itzali egin behar dutela gasolina-zerbitzuguneetan (zerbitzuguneak) eta irrati-ekipoak erabiltzeko mugak errespetatu egin behar dituztela erregai-deposituetan (erregaia biltegitatu eta banatzeko eremuak), instalazio kimikoetan eta leherketak egiten diren lekuetan.

Leherketak gerta daitezkeen guneak argi eta garbi adierazita daude sarritan, baina ez beti. Horietako batzuk hauek dira: itsasontzietako kubiartak; produktu kimikoak biltegitatu eta garraiatzeko instalazioak; petrolio-gas likidotua (adibidez, propanoa edo butanoa) erabiltzen duten ibilgailuak; airean partikula edo elementu kimikoak (adibidez, pikorra, hautsa edo metalezko partikulak) dauden eremuak, eta normalean ibilgailuaren motorra itzaltzeko eskatzen diren eremuak.

## ■ Ibilgailuak

Langile trebatuek soilik konpon dezakete telefonoa edo instala dezakete ibilgailu batean. Behar bezala instalatu edo konpondu ez bada, arriskutsua gerta daiteke eta unitateari aplikatzen zaion bermea baliogabetu.

Maiz egiaztatu zure ibilgailuko telefono mugikorraren ekipo osoa behar bezala muntatuta dagoela eta behar bezala dabilela.

Ez biltegiratu eta garraiatu likido sukoirik, gasik eta material lehegarrik telefonoa eta haren pieza edo osagarriak dauden leku berean.

Airbaga duen ibilgailua baduzu, gogoratu indar handiz puzten dela. Ez jarri objekturik –ez instalaturiko ekipoa, eta ez telefono mugikorraren pieza eramangarriak– airbagaren gainean edo hori zabalduko den gunearen gainean. Telefonía mugikorreko ekipoa ibilgailuaren barruan behar bezala instalatuta ez badago eta airbaga zabaldu egiten bada, kalte larriak eragin ditzake.

Debekatuta dago telefonoa hegaldietan erabiltzea. Deskonektatu telefonoa hegazkinean sartu aurretik. Telefono mugikorrek hegazkinean erabiltzea arriskutsua izan daiteke hegazkinaren beraren funtzionamenduarentzat, eta telefono mugikorraren sarearen konexioa eten egin dezake; gainera, legez kontrakoa da.

Argibide hauek ez betetzeak araua hautsi duen pertsonari telefono-zerbitzua etetea edo ukatzea eragin dezake; gainera, legezko bidea ireki daiteke edo bi gauzak batera gerta daitezke.



## ■ Larrialdi-deiak



**Garrantzitsua:** Telefono hau, beste edozein telefono mugikor bezala, irratiseinaleekin, haririk gabeko eta lurreko sareekin eta erabiltzaileak programatutako funtzioekin dabil. Horregatik, ezin daiteke bermatu konexioek egoera guztietan funtzionatuko dutenik. Horrenbestez, ez dute inoiz telefono mugikor bakar baten mende egon behar komunikazio garrantzitsuetarako (esate baterako, larrialdi medikoak).

Agian ezin izango dira larrialdi-deiak egin telefono mugikorren sare guztietan edo sare-zerbitzu edo telefonoaren funtzio jakinak erabiltzen direnean. Kontsultatu tokian tokiko zerbitzu-hornitzaileekin.

### Larrialdi-dei bat egiteko:

1. Telefonoa piztuta ez badago, piztu. Egiaztatu seinale-intentsitatea egokia dela. Zenbait sarek telefonoan baliozko SIM txartel bat jartzeko eska dezakete.
2. Sakatu  behar adina alditan (adibidez, dei bat amaitzeko, menutik ateratzeko, etab.) pantailan ezabatu eta deitzeko.
3. Tekleatu zu zauden tokiko larrialdi-zenbakia (adibidez, 112, 911 edo beste edozein larrialdi-zenbaki ofizial). Larrialdi-zenbakiak aldatu egin daitezke herri batetik bestera.
4. Sakatu  tekla.

Zenbait funtzio aktibatuta badaude, agian desaktibatu egin beharko dituzu larrialdi-dei bat egin ahal izateko. Kontsultatu gida hau eta tokian tokiko zerbitzu zelularreko zure hornitzailearekin. Larrialdi-dei bat egitean, ez ahaztu beharrezkoa den informazio guztia ahalik eta xeheen zehazteaz. Gogoratu istripuaren lekuan telefono mugikorra izan daitekeela komunikazio-bitarteko bakarra: Ez eten komunikazioa hori eskatu arte.

## ■ Absortzio Espezifikoa-ren Tasaren (SAR) ziurtagiria.

TELEFONO-MODELO HONEK IRRATI-UHINEK PERTSONENGAN DUTEN ERAGINAREN EB-REN ESKAKIZUNAK BETETZEN DITU

Zure telefono mugikorra irrati-transmisorea eta irrati-hargailua da. Europako Batasuneko Batzordeak gomendaturiko irrati-maiztasunaren (IM) energiarekiko esposizio-mugak ez gainditzeko diseinatuta eta fabrikatuta dago.



Muga horiek arteztarau zehatz batzuen zati dira, eta herritarrentzat baimenduriko IMren energia-mailak ezartzen dituzte. Jarraibideak zientzia-erakunde independenteek garatutako arau estandarretan oinarritzen dira, eta aldizkako azterketa zientifiko zehatzak kontuan hartuta eginda daude. Arau hauek segurtasun-tarte handia dute, pertsona guztien segurtasuna bermatzeko, pertsonak duten adina edo osasun-egoera kontuan hartu gabe.

Telefono mugikorretarako esposizio estandarreko indizea Absortzio Espezifikoaren Tasa edo SAR (Specific Absortion Rate) izeneko unitatearekin neurtzen da. FCCk gomendatutako muga-tasa 2,0 W/kg da. SAR probak FCCk onartutako funtzionamendu-posizioetan egiten dira, telefonoa potentzia-maila ziurtatu handiengan transmititzen ari dela probaturiko maiztasun-banda guzietan. SAR ziurtatutako potentzia-maila handienera zehazten den arren, telefonoaren funtzionamenduko tasa erreala gehienezko balioaren azpitik egon ohi da nabarmen. Telefonoa hainbat potentzia-mailatan funtzionatzeko eta sarera konektatzeko behar den potentzia bakarrik erabiltzeko diseinatuta dagoelako gertatzen da hori. Normalean, telefonia mugikorreko antena batetik zenbat eta hurbilago egon, orduan eta txikiagoa da energia-emisioa.

Modelo bat publikoarentzat salgai egon aurretik, telekomunikazioetako ekipu terminaleri buruzko Europako arteztaraua betetzen duela erakutsi behar du. Arteztarau horretako funtsezko baldintzetako bat da osasunaren babesa eta erabiltzailearen eta beste edozeinen segurtasuna. Telefono-modelo honetarako ezarritako SAR balio altuena, telefonoa belarran jarrita erabiltzen denerako 0,56 W/kg da. Hainbat telefonoren eta hainbat posiziotako SAR indizeen artean desberdintasunak egon arren, guztiek betetzen dituzte EBren eskakizunak irrati-maiztasunetikiko esposizioari dagokionez.

Produktu honek irrati-maiztasunaren energiarekiko esposizioa arautzen duten arauak betetzen ditu, bai belarriaren ondoan, bai gorputzeko 1,5 cm gutxienez edukitzen denean ere. Produktua zorro babesle batekin, gerriko pintza batekin edo euskarri batekin gorputzetik gertu erabiltzen baduzu, komeni da zuk metalik gainean ez izatea eta produktua gorputzetik 1,5 cm-ra gutxienez izan behar duzu.

\*Jendeak erabiltzen dituen telefono mugikorretarako SAR muga 2,0 Watt/kilogramo (W/kg) da batez beste, giza ehunaren hamar gramoko. Mugak segurtasun-tarte nabarmena du, jendearentzat babes gehigarria ezartzen duena eta neurrien edozein aldaketa kontuan hartzen duena. Absortzio espezifikoaren tasaren balioak (SAR) estatu bakoitzeko informazio-eskakizunen eta sarearen bandaren arabekoak dira. Beste eskualdeetako absortzio espezifikoaren tasaren inguruko informazio gehiago lortzeko, kontsultatu produktuari buruzko informazioa [www.nokia.com](http://www.nokia.com) helbidean.

# FABRIKATZAILEAREN BERME MUGATUA

## EUROPA ETA AFRIKARAKO

Berme hau Nokia Mobile Phones enpresaren Europako eta Afrikako zati batean aplikatuko da, tokian tokiko bermerik badago. Materialei, diseinuari eta eskulanari dagokienez, Nokia Mobile Phones Ltd. ("Nokia") enpresak bermatzen du Nokia produktu hau ("Produktua") lehen aldiz erostean akatsik gabe dagoela, zehaztapen eta baldintza hauen pean:

1. Berme mugatu hau produktuaren azken kontsumitzaileari ematen zaio ("Bezeroa"). Ez du bazterten, ez mugatzen i) Bezeroari legez onartutako edozein eskubide, ii) Produktuaren saltzaileari/banatazeari dagokienez, Bezeroak duen edozein eskubide.
2. Berme-aldia hamabi (12) hilekoa da, lehen Bezeroak Produktua erosten duen egunetik kontatzen hasita. Produktua ondoren salduz gero edo jabea/erabiltzailea aldatuz gero, berme-epa hasierako hamabi (12) hileko denboraldi horri geratzen zaiona izango da, eta ez da inolaz ere aldatuko. Berme hau herrialde hauetan soilik da baliagarria eta aplikagarria: Europako Batasuneko kide den edozein estatutan, Bosnian, Bulgarian, Zipren, Kroazian, Eslovakian, Estonian, Hungarian, Islandian, Israelen, Letonian, Lituanian, Mazedonian, Maltaan, Norwegian, Polonian, Txekiar Errepublikan, Errumanian, Suitzian eta Turkian.
3. Berme-aldian, Nokiak edo hark baimenduriko zerbitzu teknikoak Produktu akastuna konpondu edo ordezkatzeko du, Nokiak hala eskatuta. Nokiak Produktu konpondua edo funtzionatzeko egoera onean dagoen beste Produktu bat entregatuko dio Bezeroari. Ordezkatutako osagai edo bestelako ekipoz guztiak Nokiarenak izango dira ordutik aurrera.
4. Berme-aldia ez da luzatu edo berrituko konpondutako edo ordezkatzutako produktuetan.
5. Berme mugatu honen barruan ez dira sartuko pintaturiko karkasa edo bestelako osagarri pertsonalizatuak. Operadorearen baten SIM-lock-a aktibatzea edo desaktibatzea beharrezkoa bada, Nokiak Bezeroa dagokion operadorearengana bidaliko du SIM-lock-a aktibatze edo desaktibatze, Produktua konpondu edo ordezkatu aurretik.
6. Berme mugatu honen barruan ez da sartuko ohiko erabilerari zor zaion nariadura. Kasu hauetan ere ezin izango da aplikatu berme mugatu hau:

(i) Produktuaren akatsa kasu hauen ondorioa bada: erabiltzaile-eskubiduraren adierazita ez bezala erabiltzea; bortizki manipulatzea; leku hezeetan, muturreko baldintza termikoetan edo muturreko ingurumen-baldintzetan edukitzea, edo baldintza horien ustekabeak aldatzea jasanaraztea; korrosioa; oxidazioa; baimendu gabe aldatzea edo konexioak egitea; Produktua baimendu gabe konpontzea edo irekitzea; baimendu gabeko ordezkotzeekin konponketak egitea; gaizki erabiltzea; behar bezala ez instalatzea; istripuak; meteorok; elikagaiak edo likidoak gainera isurtzea; produktu kimikoen eragina jasanaraztea edo bestelako ekintzak, Nokiaren arazoizko kontroletik kanpo daudenak (esate baterako, osagarri

sukoien hutsak –adibidez, bateriak, haien ezaugarriak kontuan hartuta iraunaldi mugatua dutenak– eta antenen kalteak edo hausturak), baldin eta akatsa bera materialen, diseinuaren edo eskulanaren akatsen batek eragin ez badu.

(ii) Berme-aldiaren barruan, Bezeroak Nokiari edo hark baimendutako zerbitzu teknikoari akatsa detektatu zenaren berri hogeita hamar (30) eguneko epean ematen ez badio.

(iii) Berme-aldiaren barruan, Nokiari edo hark baimendutako zerbitzu teknikoari akatsa detektatu zenetik hogeita hamar (30) eguneko epean Produktua entregatu ez badio.

(iv) Produktuaren serie-zenbakia, osagarriaren fabrikazio-dataren kodea edo IMEI zenbakia kenduta, erabat edo zati bat ezabatuta, aldatuta edo ez irakurtzeko moduan bada.

(v) Akatsa sare zelularren okerreko funtzionamenduak eragin badu.

(vi) Produktua Nokiak fabrikatu gabeko edo hornitu gabeko osagarri batekin edo osagarri batera konektatu izana bada akatsaren iturburu; edo aurreikusitakoaren bestelako erabilera eman izana.

(vii) Akatsa bateriaren zirkuitulaburrak, bateriaren konpartimentuaren zigiluaren hausturak, zelulak hautsi edo hondatu izanak edo bateria zehaztu den bestelako produktu batean erabili izanak eragindakoa bada; edo

(viii) Produktuaren softwarea eguneratu egin behar bada, sare zelularren aldatetak direla-eta.

7. Berme mugatu hau erreklamatzeko, Bezeroak hauxe aurkezteko aukera du: (i) jatorrizko berme-zurtagiri bat, irakurtzeko modukoa eta aldatetarik gabea; zurtagiri horretan argi adierazi beharko du saltzailearen izena eta helbidea, erostetaren data eta lekua, Produktu-mota, IMEI edo bestelako serie-zenbakia; edo (ii) jatorrizko erosketa-faktura, irakurtzeko modukoa eta aldatetarik gabea, informazio bera duena, erosketa-faktura Produktuaren saltzaileari/banatazeari aurkezten bazaio.

8. Berme mugatu hau da Bezeroak Nokiaren aurrean duen eskubide bakar eta esklusiboa, baita Nokiak Bezeroaren aurrean duen erantzukizun bakar eta esklusiboa ere, Produktuaren akatsen edo okerreko funtzionamenduari dagokienez. Berme mugatu honek beste edozein berme edo erantzukizun ordezkatzeko du, ahozkoa, idatzizkoa (legez aginduzkoa ez dena), estatutuei buruzkoa, kontratuari buruzkoa, kontratuz kanpokoa edo beste edozein motatakoa dela ere. Nokia ez da inoiz erantzule izango edozein kalteren kasuan, kalte horiek zuzenekoak, zeharkakoak, ondoriozkoak eta/edo osagarriak direla ere; eta ez ditu bere gain hartuko kalte-ordainak, lortu gabeko irabaziak, kostuak edo gastuak. Halaber, Bezeroa pertsona juridikoa den kasuan ere, Nokiak ez du bere gain hartuko inolako kalte zuzenik, kosturik edo gasturik.

9. Berme honetan edozein aldateta edo aldatutako egiteko, Nokiaren idatzizko akordioa behar da.

## BERME-TXARTELA

INPRENTA-LETREKIN BETE BEHARREKOA

Eroslearen izen-abizenak: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

Herrialdea: \_\_\_\_\_

Telefono-zenbakia: \_\_\_\_\_

Erosketa-data (ur/hi/eg):  /  /

Produktu-mota (bateriaren azpian dagoen telefono-motaren etiketan):  -

Modelo-mota (bateriaren azpian dagoen telefono-motaren etiketan):

Telefonoaren serie-zenbakia (bateriaren azpian dagoen telefono-motaren etiketan):

/  /  /

Kargagailuaren serie-zenbakia (kargagailuaren etiketan) eta fabrikazio-data:

Bateriaren serie-zenbakia (kargagailuaren etiketan) eta fabrikazio-data:

Erosketa-lekua: \_\_\_\_\_

Dendaren izena: \_\_\_\_\_

Dendaren helbidea: \_\_\_\_\_



B

Zigilua

 **Euskaltel**  
*mòvil*

*mòvil*

